

K...eta! Kitto!

2017-III-31

1.010 zkia.

Bertatik bertara txirringa erreinuan

GARBITU (30 min)
- Ideala (9 kg.) 5€ / 4€
- Super (20 kg) 9€ / 7,5€

LEHORTU (30 min)
- Ideala (14 kg.) 4€ / 3,5€
- Super (21 kg) 5€ / 4,5€

Zure jaboia eta leungarria
ekarri dezakezu
edo gureak erabili!

Ordubetean zure erropa garbitu eta sikatuta

*Ekarri zure
mantak eta
edredoiak
garbitzera
gorde
aurretik*

GARBITEGIA



Speed Queen.

autozerbitzua

Ego-Gain, 15



bus
geltoki
ondoan

astelehenetik igandera
zabalik: 08:00-22:00



DENDATIK SUKALDERA USAIN
ETA HONDAKINIK GABE!

ONTZIRATU ZAITEZ!

ERABILI ETA
SARIAK
IRABAZI!

25 € HILEAN



Eibarko dendetan,
produktu freskoak
etxera eramateko ontzi
berrerabilgarriak erabiltzea
proposatzen dizuegu; zure
jakiak babesteaz gain,
ingurumena ere babestuko
duzu.

Zatoz erosketa egitera
zure tuperrarekin
edo eskuratu
berri bat!



Eskura ezazu ontzi hau 0,5 euroren truke Unzaga plazan

Asteazkena apirilak 5 (9:00-13:00) - Osteguna apirilak 6 (16:30-19:30)

Ostirala apirilak 7 (10:00-13:30)

**Ontzi bakarra etxebizitzako stock-a amaitu arte (erroltarekin egiaztatuko da)

ESTABLEZIMENDU PARTE-HARTZAILEAK

Arrandegiak: Arregui-Dominguez (Behekoa eta Goikoa), Genoveva-Maite, Guillermo, Maite, Merk&to, Soraya eta Vanesa-Gloria. **Harategiak:** Arabe Jardines, Artamendi, Beni, Gallega, Majid Amaña, Merk&to, Mugika, Oberena, Otegui, Rayan eta Tienda Jardines



elogunea

kutxa FUNDAZIOA

www.ekogunea.eus

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarte.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpuru.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Maialen Belaustegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:
Leire Iturbe

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.150 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundia
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

eskutitzak

– Gazte-politika geldieran –

Kezkatuta gaude PSOEn Udal Gobernuak ez dielako ezelako lehentasunik ematen gazteria kontuei. Eibar ez da gazteentzako hiri erakargarria langabeziari, etxebizitza merkatuaren dinamizazio faltari eta biztanleria zaharkituari loturiko arazoak estruktural ari direlako bilakatzen. Egoera hori iraultzeko soluziobideak eskaini beharrean, Gobernuak 3 urte daramatza norabide argi barik. "2008-2014 Eibarko Gazte Plana" 2014an agortu zen eta beraz, gazteria politikoa geldieran dago; ez atzera ez aurrera.

Okerrena da Plan hura ebaluatu ere ez zela egin. Horregatik diogu agintaldi honetan sortutako gazteria ordezkaritza Udalaren ekimen falta estaltzeko trikimailua dela. Zentzu horretan etorkizunera begirako plan berri bat eskatzen dugu; gazteen beharrei modu integralean, eta ez asistentzialean bakarrik, erantzuten saiatuko dena eta gazte-politika behingoz abiatuko duena.

EGI - Eibar

– Okerrak zuzentzen –

Aurreko asteko aldizkarian, Miren Narbaizari egindako elkarrizketan (9. orrialdean) erabili genuen argazkia sinatzea ahaztu zitzaigun eta, beraz, ez genuen egilearen izenik kaleratu. Argazkia AMAIA ZABALOK ateratakoa da, beste publikazio baterako egindakoa, eta musutruk erabiltzeko baime-na eman zuen, mesede modura. Horregatik, gure hankasartzeagatik barkamena eskatu nahi diogu eta, bide batez, bere lanari merezi duen aitortza egin.

Erredakzioa



Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

LIBRE IZAN.- Ahal izan. "Itturri honetatik libre da nahi beste ur hartzia".

LIJERTU.- Leundu, arindu. "Apopillajia eskatzera obligatzen nok, ia zorrak lijertzen doguzen". Lotutakoa nasaitu. "Masaje bat hartu biharrian nago, ia lijertzen jatan bizkarralde hau".

astean esanak

"Nor da eri: ahateak ala sistema? laz, hegaztien gripea agertu zenean, sistema industrialak ikaratu zen eritasun horregatik esportatzea debekatuko zitzailela-eta. Sistemak erabaki zuen ahate guztien hiltzea, huste sanitarioa egitea eta berriz hastea sekula bezala! Aterpe handi berrietan, kamioiak bideetan barna, berriz baldintza guztiak gaur bizi dugun egoerara heltzeko: berriz ere gripea hor dugu! Milioika euro kostako da. Diru publikoa baliatzen da interes pribatuek asmatu sistemaren kalteak ordaintzeko"

(PANPI SAINTE-MARIE, LABORARIA)

"Haze Oir-en kanpainako autobusa geldiaraztearen kontra nago adierazpen askatasuna mugatzearen kontra nagoelako. Azken hau demokrazia ororen bermatzailea izan beharko luke; tolerantzia eta gustuko ez ditugun gauzak entzuteko gaitasuna dira-eta kultura demokratikoaren zimenduak. Horregatik, Haze Oir-en kanpainaren mezua gorroto delituarekin lotzea neurritik kanpoko iruditut zait. Gorroto delituak espetxe zigorra dakar, eta hemen zigorrik behar bada administratiboa edo eskubide zibilaren bitartekoa izan beharko luke. Bestela, adierazpen askatasunaren kontrako eraso elikatzen ari gara"

(CESAR STRAWBERRY, DEF CON DOS ABESLARIA)

"Askotan bilatzen da ilargi betea, baina eraginkorrak dira prozesuak: ilgora eta ilbehera. Ilgoran, ilargia betetzen ari denean, eguzki eta ilargiaren indarrak gorantz egiten dute: ortuan, esaterako, lur azpikoak hartuko luke indarra. Ilbeheran, ilargia husten ari denean, beheantze egingo du indarrak, eta susturriak sendotuko dira. Ilargiak mareak baldintzatzen ditu, baina baita gure desira, instintu eta umorea ere. Ilbetearen aurreko egunek logura kentzen dute: loarekin lotura duen garuneko jarduna %30 murrizten da. Eta, egun aproposan depilatuz gero, bi aste luza daiteke ilea hazteko prozesua. Azazkalekin gauza bera"

(MICHEL GROS, IDAZLEA)



IMANOL MAGRO

Familiarik gabeko etxeak

Aurreko astean etxegabetze bat egon zen Eibarren. Edo, beste modu batera esanda, familia bat kale gorrian gelditu zen San Juan kalean. Etxegabetxearen unearen bideoa bueltaka ibili zen whatsapp multzo eta sare sozialetan. Ahaztuta genituela uste genuen irudiak ziren: liskarra, pankarta, poliziak atean... Sare sozialetako bertsioen arabera, alokairua ordaindu ezin zuen familia bat zen, eta azken unean diruaren zati handi bat biltzeko ahalegina egin ondoren, kaleratzea saihestu ezin ahal izan zuena. "Eta etxearen jabea zu bazina, zer egingo zenueke?", galdetu dit nire tristura azaldu diodan bakoitzari. Etxearen jabeak bere eskubideak ditu, baina eskuzabalagoa nintzatekela uste dut. Hala ere, ondorioa garbia da: etxerik gabeko familia, eta familiarik gabeko etxe bana gehiago. Eibar Hiriko Guziz Eredugarria dela dio armarririk. Guziz eredugarria bai, eta ehundaka etxe huts dituen ere bai. Sozialismoa eta elkartasunaren bandera hartu dugu maiz gure iraganera begiratzean; "errepublikia", badakizu. Baina etxe huts kopuruak, eta alokairuen prezio altuek, gure hirien lotsak azaleratzen ditu. Teiltatu bat edukitzea oinarrizkoa da bizitza autonomo bat egiteko, eta errealtateak erakusten digu etxegabetzeak oraindik hor daudela, erdi ezkutuan, baina hor. Hainbeste etxe huts egotea hiriak bere gain onar ez dezakeen luxu bat da, eta biztanleak irteera behartzen ditu. Txiroenak euren etxeetatik, eta gazteak hiririk bertatik.

Zuhaitz Eguna ospatuko da etzi Usartzan lau motatako 40 zuhaitz landatuta

Lizarra, haritza, gorostixa eta urkia. Lau espezie horrek landatuko dira naturarekin hartuemonak sendotzeko asmuarekin domeka goizian Usartzan egingo dan ekitaldi berezitan. Eibarko Klub Deportiboko Mendi Batzordiak, Debegesak eta Eibarko udalak antolatutako ekitaldixa goizietik, 09:00etan hasiko da, Depor parian: ordu-rako han bildutakuak alkarrekin ekingo detse Usartzaraiñoko bi-diari, oiñez. Edozelan be nahi dabenak autobusez juateko aukeria be izango dau. Pixkat geruago, 11:00etan hasiko dira aittatutako 40 zuhaitzak landatzen eta, behin hori amaituta, hamaiketakua egitteko ordua aille-gauko da, 12:00xak aldera. Behin berrindartuta, atzera be Eibarrera bueltan etorriko dira, 13:00etan. Basuak babesten segitzeko plan bikaiña, beraz, domeka goizekua.



urte bete dittu etxez-etxeko zerbitzuak gurian. 8 udal langillek eta zerbitzu enpresa bateko beste 14/16 bihargiñek eskintzen dabe eta iaz 119 lagun, 39 autonomo eta menpekotasuna zeken 80 (%62) atendidu zittuen.

Tatuaje solidarixuen jardunaldixak jendetza batu eban

Arrakasta itzela euki eban aurreko zapatuan Untzagako jubilaue txian egindako alkartasun tatuajien jardunaldixak. Aratattoo estudixoko Javier Garcia eibartarraren ekimenez antolatutako ekitaldixan zortzi tatuatzaille profesionalak hartu eben parte, egun osua jendiari tatuajiak egitten. Egindako diseiñu bakotxarengaittik 50 euro ko-

brau zittuen eta batutako diru guztia AFESD eta Berritxuak alkartieri emongo detse, gaixorik duguaz umien alde egitten daben biharrian erabiltzeko. Tatuajiak egitten hasi aurretik jendetza batu zan jubilaue etxiaren sarreran eta, eurixa egin arren, askok orduak emon zittuen illaran zain, nahi eben tatuajia egin ahal izateko.



Maialen B.

autuan

TRAFIKO ALDAKETAK ASTEBURUAN

Asteburuan jokatu kirol probak trafikuan aldaketak eragingo ditue. Zapatuan 16:45etan Duatloia hasiko dala eta, ezin izango da apartatu seinalizata egongo diran erdialdeko hainbat tokitan. Gaiñera, 17:00etatik 18:00etara saihesbidia itxiko dabe, txirrindularixendako. Eta domekan, Valenciaga Oroitzarrea jokatu dala eta, goizian goizetik debekatuko dabe apartakzia karreriak egingo daben ibilbide inguruko punto batzuetan.

GAZTIEN ALOKAIRURAKO DIRULAGUNTZA

59 gazteri etxiaren alokairua pagatzeko laguntasuna emon detse udalak, asmo horrekin oin dala 9 bat hillebete sortutako programiaren bittartez. Onartu zittuen eskaeretan, gaztiak hilleko 452 euroko alkilerria pagatzen dabe eta udalak hillerro 142 euro emoten detsez bataz beste, programan sartuta daguzen etxien alokairurako.



Ezker abertzaliak antolatutako omenaldixan Elgoibarren bizi zan eibartarra gogoratu zeben. **Maialen Belaustegi**



Joseba Zinkunegiri omenaldi hunkigarrixa egin jakon Legarreko frontoian

Aurreko domekan Joseba Zinkunegi "Zinku" zanari azken agurra emoteko ekitaldi hunkigarrixa egin zetsen Legarreko frontoian, ezker abertzaliak antolatutako omenaldixan. Elgoibarren bizi zan eibartarra Valdezcarayn amilduta hil zan otsaillaren 27xan, Iker Jausoro lagunarekin batera eta mendizale bixak hil zirala hillebete bete zan egunian emon zetsen az-

ken agurra lagun eta famelixakuak Legarren. Ekitaldixaren harira batutakuak asko izan ziran eta euretako batzuk oholtzara be igo ziran, tartian Arnaldo Otegi Sortuko idazkari nagusixa. Joseba Zinkunegi kazetarixa zan eta batez be azken hogei urtiant ezker abertzaliaren komunikaziño arluan (EHAKn eta Sortun) egindako biharrengaittik zan ezaguna.

JOSEBA MARTIJA URREIZTI
1. Urteurrena (2016/IV/5)

Beti gure bihotzean
ETXEKOEK

Bere aldeko MEZA ospatuko dugu domekan, apirilaren 2an, Amañako Salbatore elizan, 11:00etan



Koldo
(2014-IV-1)

"Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak, burruka hortan iraungo duten zuhaitzardaska gazteak"

ZURE
LANKIDEAK

EH Bilduk ezezko botua emongo detsa aurrekontuari

Astelehen goizian emondako prentsaurrekuan, EH Bilduk aurrekontua onartzeko udalbatzan ezezko botua emongo dabela aurreratu eban eta, horrekin batera, aurkeztutako osoko zuzenketiari eutsiko detsala. Ana Fran Astigarragak, Gorka Errastik eta Josu Cristobalek alkarrekin egindako agerraldixan azal dutakuaren arabera, "aurrekontuak EH Bilduren jardun politikotik oso urruni da goze eta, beraz, ez dittugu babestuko".

Adostasuna billatzeko egin dituden billetteretan euredako inportantiak diran hainbat puntutan ez diranez ados ipiñi, hori ikusitta ezezko botua emotia erabagi dabe. "Soldata eta dietak murriztia ezinbestekotzat jotzen dogu udal taldiarekin aurrekontuak negoziatu ahal izateko, baiña ez deskue holakorik onartu. Gauza bera gertatzen da udalaren ba-

rruan sortzen juañ dan azpikontrataziño sistemarekin". Bi horrekin batera, desadostasunerako hirugarren gaixa etxebizitzari lotutakua da: "Eibarko Plan Estrategikuak oso argi laga dau alderdi sozialistak urtiak daroiazela planak jasotzen dabenaren kontrako etxebizitzita politika egitten. Beraz, oin indarrian daguan Hirigintzarako Plan Nagusia lehenbailehen geratu biharra daguala uste dogu, Plan Estrategikuak jasotzen dabenarekin bat egitten daben plan barrixa idazteko".

Gaiñera, EkoCenterraren proiektuarekin PSE-EEK izandako jarreriak hasarratu egin dittuala diñue: "Urtiak daroiaguz horren atzetik, eskatutako guztiak bete dittugu eta, 2017an egitteko konpromisua hartu eta gero, oin gauzak ez dittuela horren argi ikusten diñue, hau larregizkia begittantzen jaku".



Ana Fran Astigarraga, Gorka Errasti eta Joseu Cristobal eskindutako prentsaurrekuan.

Perun kaltetutakueri laguntzeko kanpaiñiak aurrera dirau

Egoaizia Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundiak atzo bertan bialdutako idatzixan, Perun kaltetutakueri laguntzeko kanpaiñiarekin segitzen dabela gogorarazi nahi dabe. El Niño Costero fenomenuak oindiok be gogor dihardu astintzen Piura eta beste toki asko eta Peruko iturri ofizialak emondako azken datueri begiratuta egoeriak hobera baiño okerrera egin dabela esan leike: 97 hildako, 829.565 kaltetu, baso inguruko errepidietan 1.596

kilometro suntsituta, kaltiak euki dituden 184.112 etxe, 13.197 hektarea nekazal lur alperrik galduta, hondamendixak eragindako 1.540 eskola, 3.599 kilometro errepide txiki-txiki eginda eta kaltiak izan dituden 548 osasun establezimendu. Diruz lagundu nahi dabenak kontu honetako batian dirua sartzeko aukeria dauka: 2095 5035 06 1062284103 (Kutxabank), 3035 0023 93 0231187017 (Laboral Kutxa) eta 1550 0001 2800 0074 9226 (FIARE).



Bigarrenez egingo da Marcan Huella Kanikrosa, domekan Arraten

Marcan Huella abandonauta daguaz txakurren aldeko alkartekuak antolatuta, bigarrenez egingo da Alkartasun Kanikrosa, kaliañ daguaz txakurreri laguntzeko dirua batzeko asmuarekin. Domekan izango da II. Marcan Huella Kanikrosa, goizeko 09:00etatik 15:00etara bittartian Arraten, eta parte hartu nahi dabenak 5 euro sartu bihar dattu 3035 0048 61 0480068301 kontuan, izen-abizenak eta "II. Kanikros" ipiñitta. Dirua sartu eta gero, ingresua egin dala ziurtatzeko marcanhuella@gmail.com helbidera idatzi bihar dattu. Antolatzailliak 18 urte edo gehixago eukitzia eskatzen dabe parte hartu ahal izateko.

B. Sarasketa, 1 ac **943 12 82 31**
Kafea, opilak, ogia, pintxoak, ardoak...
 Gozatu **EIBARKO PREZIORIK ONENEKIN!**
KAFETEGIA OKINDEGIA
SUTLONDO
LABADEROKUA Egunero 06.00etatik aurrera


PUBLI RESA
objeto publicitario

Armagin, 3-5 beheak

- merchandising
- serigrafia
- lanerako erropa

publiresa@publiresa.com 943 701 497 / 615 799 419

TUTULUMENDI



IDURRE IRIONDO



Lurzoru klausulari buruzko informaziño kanpaiña

Stop Desahucios / Kaleratzeak Stop Debarrena plataformak lurzoruaren klausularen inguruko informaziñua emoteko eta ordaindutakua bueltan zelan hartu azaltzeko saio batzuk antolatu ditu apirillerako: astelehenetan (hillak 3 eta 24) 10:00etatik 12:30xetara hartuko dabe jendia; martitzenetan (hillak 4 eta 25), 17:00etatik 19:00etara; eta eguztenetan (hillak 5 eta 26), barriz, 10:00etatik 12:30xetara. Interesa dakenak egun eta ordutegi horretan jua lekez Portaleko 3. pisura eta han azalduko detsez klausula horren inguruan jakin biharrekuak. Dana dala, informaziñua emoteko kanpaiña laster amaituko dala eta, jendiari lehenbailehen juatia gomendatzen dabe plataformako kidiak.

Alemaniko ikasliak udal artxibuan bisitan

Alemaniatik etorritako 21 ikasleko taldia Eibarko Udal Artxibuan bisitan egon da. Gaztiak Albstadt (Baden-Wurtemberg) herritik etorri dira geurera, Uni Eibar Er-mua ikastetxiak antolatutako ikastetxe-truke batian. Alkartrukerako programaren helburu nagusiñak, "Albstadt eta Eibarren arteko lotura kulturalak sendotzia eta bata bestiaren kultura, hizkuntza zein inguru soziala ezagutzia" dira. Artxibora egindako bisitan, bestiak beste, gure memoria kolektibua gordeta dagan tokixa ezagutzeko aukeria euki dabe eta, han erakutsi detsazen irudi eta dokumentuen bittartez, ikasliak gure herriko oraiña ez eze, iragana be ezagutzeko aukeria euki dabe.

Eskola jazarpenaren inguruko hitzaldixa antolatu dabe gurasuendako

Aste Santuaren ostian, apirillaren 25ian eskola jazarpen edo "bullying" dala-kuaren inguruko hitzaldixa eskinduko dabe Portalean, bereziki gurasuendako pen-sauta. Haurren hazkuntza eta hezkuntzarako lagungarrixak diran hitzaldi eta tailla-rrak guraso eta hezitzailliendako antolatzen dittuan Bidelagun-en esku-tik egingo da saia, 14:30xetatik 16:30xetara, eta hizlarixa Nerea Mendizabal psikopedagogua, Gi-zarte eta Haur Masajeko hezitzaillia eta Komunikaziñuan aditua izango da (osatzen dan taldiaren arabera euskeraz edo gazteleraz izango da).



Izen-emotiak 20 euro balixo dau, baiña apirillaren 7xa baiño lehen emoten dabenak 16 euro ordainduko dabe. Izena emoteko eta informaziño gehixago eskatzeko miren.bidelagun@gmail.com helbidera idatzi leike edo, bestela, 605 742 841 telefono zenbakira deittu.



Armeria Eskolako Ikasle Ohien Elkarte

Helburuak eta eskaintako zerbitzuak

Eibarko Armeria Eskolako Ikasle Ohien Elkarte 1950n urtean sortu zen. Bazkideei esker inguruko enpresekin lotura eukitzeko baliabidea izan da sorreratik bertatik: Armeria Eskolan ikasketak amaitzen zituzten ikasleek denborarekin negozio propio berriei ekiten zieten edo zuzendaritza karguari dagozkion erantzukizunak barneratzen zituzten. Horrek guztiak Ikasle Ohien Elkarte ezinbesteko gako bihurtzen zuen Armeria Eskolako inguruko enpresekin zuen erlazioan.

90n hamarkadaz geroztik, ikasketa zikloak murriztu, unibertsitate ikasketak areagotu, enpresen berrikuntza garapenak etengabe areagotu eta tendentziak aldatzen joan dira eta honekin batera, elkartearen funtzionamendua ere moldatu egin da. Gaur egun enpresa sare bat osatu eta honekin lan egitea beharrezkoa zaigu bailarako enpresarekin kontaktuan egoteko. Hezkuntza arloan batez ere, bizkorrak eta berritzaileak izan behar dugu egungo beharrei erantzun eta erreferenteak izaten jarraitu ahal izateko. Beraz, Ikasle Ohien Elkarteak berrikuntza organo ireki gisa jokatu du, hau da, Armeria Eskolaren "berrikuntza eta transformazio palanka" gisa. Gaur, ikasle ohi bazkideez gain enpresa sare garrantzitsu bat du elkarteak eta hauetarikoz zazpi zuzendaritza taldeko partaide dira. Horri esker merkatuak eskatzen duena lehen eskutik ezagutu eta elkarlanean behar horiei erantzuna ematea lortzen dugu, Armeria Eskolaren posizionamendua bultzatzen den heinean.

helbidea: Isasi kalea, 36
telefonoa: 943 20 32 44
e-maila: elkarta@armeriaeskola.eus
harremanetarako: Leire Illarramendi



Ikasle ohi bazkideez gain, enpresa sare garrantzitsua du elkarteak.

Usartza txistulari taldea

Helburuak eta eskaintako zerbitzuak

Usartza txistulari taldearen helburua, txistua ezagutzera ematea eta honek dituen aukerak erakustea da. Euskal doinuak eta kanpoko musika jorratzen ditugu. Txistua bakarrik edo beste instrumentu batzuekin uztartzen du Usartzak. Gaur egun taldea zortzi lagunez osaturik dago eta astero elkartzen gara. Azken urte hauetan, ohikoak ziren kontzertu eta kalejirez gain, aldaketa eta berritasunak sartzen saiatu gara urteko egitarauan (kamara kontzertua, danborradakoa...), Eibarko kultura agendan pixkanaka pixkanaka finkatzen doazenak. 2017 urte honetarako beste pauso bat eman nahi dugu eta proiektu berri batekin gatzoz: aspaldi egiten ziren Txistulari Alardeei ekin nahi diegu, oraingo honetan freskotasunez eta modernitatez bustiz.

Ekintza nagusiak

- Hilabetero kalejirak edo kontzertuak eman.
- Udazkenean kamara kontzertua eta 2017ko ekainaren 25ean Txistulari Alardea.
- Eibarko jaiak girotu.
- Elkarlana beste talde kulturalekin.
- Protokolo harrerak.

telefonoa: 606 631 312 (Enrique Montero)
e-maila: usartzatxistularitaldea@gmail.com
facebook: Usartza Txistulari Taldea



Zortzi lagunez osaturik dago Usartza Txistulari Taldea.

Astebete
eskas
falta da

BATZUK
20. Korrika
OTXANDIOTIK IRUÑARA

20. Korrikak gure herria zeharkatzeko. Ermuatik ailegatuko da eta Soralezko bidea hartuko du herriko kaleak euskaraz jantzi eta gero. Atzo hasi eta apirilaren 9an amaituko den Korrikak, zirko giroan eta 'Batzuk' lelopean, euskaraz beteko ditu Euskal Herriko txoko guztiak Otxandiotik Iruñara. Eibarko kaleak txukun jarri dira eta bideak zain daude eskurik esku euskararen lekukoa pasatzeko.



Eibar FT-ko jokalariek ere Korrikarekin egin dute bat.

Abiada hartu euskararekin KORRIKA egiteko

Iluntzean ailegatuko da 20. Korrika Eibarrera datorren barixakuan, apirilaren 7an, baina hiria koloreztatzeko haina indarrekin. 'Batzuk' lelopean hizkuntza, kultura eta mundu batzuk irudikatu nahi ditu edizio honetan AEK-k antolatutako ekimen erraldoiak, hizkuntza-aberastasanak eta kultur aniztasun unibertsalak eskaintzen dituen koloreak margotuz.

Uni Eibar-Ermuan hartuko du Eibarrek Korrikaren lekukoa 22:43ak inguruan. Otaola etorbideetik Ipuruara joko du Eroski-ko aldapa igoz, eta handik Untzagaraino jaitsiko da; gero, Kalbetoi kaletik Bidebarrietara ailegatuko da, eta Julian Etxeberriatik Untzagaraino iritsiko da berriz Toribio Etxebarria kalea igaroz; bigarren aldiz Kalbetoi igaroko du Korrikak eta Bidebarrieta, Urkizu, Barrena eta Azitain pasa ostean, Mail lantegian emango da azken lekukoa gure herrian. Handik, Soralezko joko du Korrikak, euskarak bere bidea jarraituz.

Kutsu eibartarreko 'Zirkorrika'

Oñatitik Bilbora joan zen lehen Korrika 1980an. Aurten hogeigarrenez zeharkatuko du Euskal Herria, bi mila kilometro baino gehiago euskararen alde eginez. Ohikoa den bezala, Korrika girotzeko abestia sortu dute antolatzaileek eta edizio honetakoak zirko giroan murgiltzeko doinuak dakartza, 'Zirkorrika'. Kantuak, gainera, kutsu eibartarra dauka. Izan ere, Miren Narbaiza abeslariak parte hartu du bertan.

KORRIKA TXIKIA

Korrika Eibarrera ailegatu baino egun bat lehenago, apirilaren 6an, Korrika Txikia



egingo da herrian. Eibarko ikastetxeetako ikasleek hartuko dute parte eta, eskuz esku, mezu bat daraman lekukoa pasatuz joango dira.

Arno DJ-aren musikarekin girotuta, La Salle Isasi parean emango zaio hasiera ibilbideari 15:15etan eta La Salleko ikasle bategen eramango du lehen lekukoa. Handik Untzagara jaitsiko da Korrika Txikia eta, Txoko taberna parean, Amañakoak hartuko du lekukoa. San Andres Elizan Arrateko Andra Mari koei tokatuko zaie aurrean joatea eta hauek San Andres eskola parean bertako ikasle bati emango diote lekukoa. Las-

20. KORRIKAREN IBILBIDEA:

Martxoak 30: *Otxandio-Langraiz*
Martxoak 31: *Argantzun-Cadreita*
Apirilak 1: *Castejon-Errokari*
Apirilak 2: *Izaba-Azkaine*
Apirilak 3: *Sara-Orokieta*
Apirilak 4: *Auza-Usurbil*
Apirilak 5: *Orio-Mungia*
Apirilak 6: *Gorliz-Larrabetzu*
Apirilak 7: *Lemoa-Soraluze*
Apirilak 8: *Bergara-Bakaiku*
Apirilak 9: *Etxarri-Aranatz-Iruñea*

terketak Urkizurako bidea jarraituko du eta han, Arragueta kalera daraman errebutelan, Urkizu eskolako ikasle bat jarriko da buruan. Ibarburutzen Aldatzek hartuko du lekukoa eta, Aldapatxo parean, J.A. Mogel ikastolaren txanda iritsiko da, Korrika Txikia Untzaga Plazaraino eramanez.

Urkizu ikastetxeko ikasle batek lekuko barruan joango den mezua irakurriko du Untzagan, eta 17:00ak inguruan amaituko da ekitaldia.

KORRIKA KULTURALA

Euskal Herriko errepedeetan hasi dira euskararen aldeko urratsak, baina Korrika Kulturalak orain dela aste batzuk hasi zuen bere ibilbidea, baita Eibaren ere. Martxoaren 5ean, adibidez, 'Pikadero' pelikula eman zen Biharrian elkartearen, eta martxoaren 11an Jaleo, Zartako-k eta Against Youren kontzertua jaso zuen Gaztetxeak.

Apirilaren lehen astean ekintza ugari antolatu dira herrian Korrika Kulturalaren inguruan. Bihar, hilaren 1ean, Izarraitzera mendi irteera egingo da Inma Mugerza geologoarekin; etzi, domeka, 'Perlak' musika taldeak kontzertua eskainiko du Belekotabernan 19:00etan ...eta kitto! Euskarra Elkartearen laguntzarekin; apirilaren 3an, astelehena, 'Zura' dokumentala emango da Coliseoan 19:00etan; hilaren 6an, osteguna, 'Jokoz kanpo' antzezlan eskainiko da Coliseoan 20:30etan; eta hurrengo egunean, 'Ttun Ttun Brigade' musika taldeak kontzertua eskainiko du Belekotabernan 20:00etan. Gainera, Korrika edizio guztietako kartel erakusketa egongo da Topalekuan apirilaren 4tik 7ra.

moda



arkitektura

Jakituria handiko damak

Arkitektoa patrioiak eraikitzeko, eskultorea formak emateko, margolaria marrazkiak egiteko, musikaria harmonia emateko eta filosofoa neurrientzako. Horiek dira Balenciaga handiaren hitzetan modista on bat izateko ezinbesteko gaitasunak. Bada gaur egun halakorik?

Kolaborazio honek amama guztientzako oda bat izan nahi du. Artista hutsak direlako. Sukaldaritzako erreginak eta




modista trebeak. Esperientziadunak, funtsezkoak. Jakituria handiko damak. Baina ez da hau eskerrak eta zorionak emateko toki aproposena. Euren josteko abilezia goraiatu nahi dut gaurkoan, inbidia puntu batekin gainera.

Eurak gazteak ziren garaian, erropaz hornitzeko modua nork berea egitea zen, bai etxean bertan edota hortara dedikatutako tailerretan. Neurrira egingdako erropak zituzten, egun pentsaezina dena.

Jostea emakume guztiek, gazte gaztetatik, jakin beharreko lana zen. Dendentan telak edo ehunak hautatu eta erosi, gorputzaren neurriak hartu, patrioiak asmatu edota aldizkarietan argitaratutakoak kopia, ehunera pasa, hauek moztu eta josi. Erropa gutxiago edukiko zuten, bai, baina kalitate onekoak, bata bestearekiko desberdinak, eta dotoreak oso.

laura albistegi



Ez dira harririk ba gazteok dugun erropa kantitate guztiarekin eta hauek ekoiztutako bide eta emaitzekin? Ez digute ba esango, nora goazen gu zapatillekin, praka apurtuekin eta ezpainak margotu barik? Eta ez dute egingo ba barre guk jositako botoi bat ikustean edota praka batzuei azpiak hartzeko ditugun arazoan aurreak?

Etorkizunean, ez da egongo modista onik, ez amama hoberik.

nagore fernandez



Ez dut uste inork kontrakoa esango duenik: obrak desatseginak dira. Berdin dio etxe barruan, eraikinaren fatxada edo herriko kaleetan diren; hauts pila, sekulako zaratak, andamioak, hesiak eta zuloak nonahi.

Onartu beharko dugu, ordea, beharrezkoak direla batzuetan, ezinbestekoak askotan, eta gehienoi tokatuko zaigula noizbait bat egitea. Obrak egingo ez bagenu, eguneroko erosotasun askori


Gogaikarriak

uko egin beharko genieke; etxebizitza zahar, fatxada ilun eta espaloi estuen artean biziko ginateke betiko. Gogaikarriak baina beharrezkoak, beraz... denok ados? Ez dakit ba!

Azken boladan sarriegi entzun ditut obrei lotutako keak, bai lanean, bai kalean, baita etxean bertan ere: "Zikin batzuk zaretel!", batek. "Nola liteke hainbeste kolpe jotzea!". "Herria hankaz gora dago, taladro hotsez esnatzen naiz egunero!", hurrengoak.

Batetik, argi dago profesionalak argi ibili behar direla, bazterrak txukun gordez eta bizilagunak errespetatuz. Bestetik, kexatzea doan izan arren eta amorrutxikiak askatzea osasungarria, esaldi latz bat bota aurretik parean entzule ditugunak langileak izaten direla oroitzea komeni da. Eta, enbarazuaren sortzaile

edo erantzule badira ere, ziurrenik bizilagunak haserretzea ez dela euren asmoa. Kexak azaldu daitezke, noski, baina begirune apur batekin hobeto ulertuko dira eta askoz gogotsuago bilatuko zaie irtenbidea, ziur. Izan ere, obrak gogaikarriak badira, purrustada garrantzak beste hainbeste... Langile eta jabeen artean eskatu beharko diegu, beraz. Eta ingurukoei, pazientzia pixkat!



Euskal Herriko Itzuliaren aitzakiarekin, Zaporeak proiektuak ekitaldi berezia antolatu du apirilaren 7rako. Arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara, elkartasun pintxo-potea egingo da Untzagan, Grezian dauden Siriako errefuxiatuei laguntzeko dirua batzeko asmoz. Grezian Zaporeak-ekin egon dena Efren Flores eibartarra da. Urtarrilaren 2an joan zen Kios uhartera eta hiru bat aste egin zituen han. Esperientziak markatuta utzi zuen eta milaka bizipen ekarri zituen handik.

“Norberaren balioak aldatzen ditu horrelako esperientzia batek”



EFREN FLORES
(Zaporeak-en boluntarioa)

– Zergatik animatu zinen Greziara errefuxiatuei laguntzera joatea?

Errefuxiatuen gaiari bueltak ematen ibili nintzen, zerbait egin behar nuela pentsatzen. Zerauzko beteranoen arraunlari taldean nabilenez, taldekide batek esan zidan urriari Greziara joango zela errefuxiatuei laguntzera eta nik gauza bera egin nahi nuela pentsatu nuen. Orduan, abenduaren 28an Zaporeak-etik deitu zidaten ea urtarrilaren 2an Greziara joan ahal nintzen, eta horrela egin nuen. Negu latza tokatu zitzaigun!

– Zenbat pertsonarentzat sukaldatzen zenuten?

Egunero 1.200 bat errazio ematen genituen. Goizeko 6:30etan esnatu eta 7:00etarako sukaldean egoten ginen, gosalduek egiten genuen eta janari guztia prestatzen hasten ginen 10:30-11:00 arte. 11:00etan janari plateretan ipini eta bi mahai banatzen ziren. Lehen platera, bigarrena eta postrea

eskaintzen genituen. Gero, 12:30etan eta 12:45etan, bi txandatan, errefuxiatu-zelaira irteten ginen. Han Norwegian Refugee Council (NRC) Gobernu Kanpoko Erakundea (GKE) zegoen eta eurek antolatzen zizuten janaria hartuko zuten pertsonen ilarak. Batetik, familientzat eskaintzen zen janaria zegoen; eta bestetik, bakarka zihoazentzat. Hori amaitzen genuenean, 15:00ak aldean, sukaldera bueltatzen ginen. Han guk jaten genuen, sukaldeta garbitu eta 17:00ak aldean libre geratzen ginen.

– Zer egiten zenuten denbora librean?

Batzuk apartamentuetara joaten ziren eta beste batzuk errefuxiatu zelaira bueltatzen ginen umeekin jolastera, eurekin ekintzak antolatuz...

– Zuen kontura?

Bai, baina han jende asko dago eta mila gauza egin daitezke. Itsas-salbamendukoekin, Tudelan jaio eta Bilbon bizi den

Estherrekin (demaseko zen!), NRC-koekin... egoten ginen.

– Nolako ekintzak antolatu zenituzten?

Norvegiarrak eta nahiko serioak dira, eta guk, adibidez, San Ferminak antolatu genituen. Tanborrada ere egin genuen! Izugarria izan zen errefuxiatuei sokasaltoan egiteak ematen zien poza ikustea. Hain gauza sinplea izanda, hainbeste gustatu zitzaion, umeentzako eta helduentzako ilara bana egin behar izan genuela. Demasa! Ostiraletan apartamentuetan zeuden familiei eramaten genien janaria. Guk sei familiarri eramaten genien eta eurretako bi oso bereziak ziren. Guk janaria eraman eta eurek tea, gozoak... prestatzen zizkiguten. Eman baino askoz ere gehiago jasotzen genuen! Demaseko erlazioa egin genuen eurekin eta gogorra izan zen banatzea.

– Zenbat egun egin zenituen han?

21 egun, oso biziak, eta gero 3 bidaietan. Ondo kalkulatu dago 21 egun pasatze hori, bestela asko erre zaitezke. Azken finean, han bakarrik zaude, nahiz eta sukaldean zoragarri moldatzen ginen. Jakiak prestatzen ‘Barrikada’ ipintzen genuen, abesten, irrintziak botatzen genituen, etab. Talde bikaina egin genuen, baina oso nekatuta amaitzen genuen.

– Zer sentitzen da bertatik bertara hura ikustean?

Pentsatuta zeneukana guztiz aldatzen da. Ezberdina da, beste mundu bat. Bizi egin behar da eta gero zerbait geratzen zaizu han. Oso hunkigarria da dena. ‘Nacido en Siria’ filma, adibidez, demasa da, oso ona, baina ikusten dudak bakoitzean asko hunkitzen nau.

– Bizitza aldatzen duen esperientzia izan da?

Norberaren balioak ere aldatzen ditu horrelako esperientzia batek.

Eguaztenian zabaldu zittuan atiak gaur eguardixan agurtu dogun #ABIAN Debarreneko III. Enplegu eta Lanbide Heziketa Azokak. Armerixako patixuan martxan egon dan hiru egunetan gazte mordua jua da bisitan, asko eta asko zer ikasi ahal daben argitzeko pista billa. Baiña azokiak ez dittu bakarrik gaztiak erakarri. Izan be, adituak diñuen moduan ikasi nahi dabenendako adin mugarik ez dago, eta gaur egunian sekula baiño gitxiago. Batez be biharrian hasi nahi dabenen kasuan.



Hiru egunetan, lan billa dabizenen, ikaslien, Lanbide Heziketako ikastetxien eta enpresen arteko alkargunia izan da #ABIAN azokia. Eta hori zan, hain zuzen be, antolatzailliak lortu nahi ebena. Azokia Debarreneko udalak, Debege-sa garapen agentziaren bittartez, eta eskualdeko LHko ikastetxiak antolatu dabe eta, aittatutako helburu horrekin batera, beste asmo batzuk be bazittuen buruan. Inportantienak, hõnetxek: eskualdeko eskintza formatibo zabala ezagutzera emotia eta, horrekin batera, Lanbide Heziketia gaur egunian lan merkatuak dittuan premiñeri onduen egokitzen dan ikasketa klasia dala nabarmentzia.

Zalantza barik, azokia horren guztiaren barri emoteko eskaparate ezin aproposagua da eta gerturatutako jendiak gure eskualdian Lanbide Hezi-

keta ikasteko daguazten aukera zabalak eta anitzak bertatik bertara ezagutzeko primerako aukeria euki dabe, oso modu erakargarrizan, horretarako ikastetxe bakoitxak bere stand-etan zuzenian erakutsitakuari esker.

Debarrenian Lanbide Heziketa eskintzen daben ikastetxiak 8 dira eta horretako hiru (Armeria Eskola, Uni Eibar-Ermua eta OLH Eibar Oinarrizko Lanbide Heziketa Zentrua) Eibarren bertan dagoz. Gaiñerako ikastetxiak be gure herritik oso gertu dagoz: IMH Makina erremintaren Institutua eta Meka Lanbide Eskola Elgoibarren; Kardala Akuakultura Eskola eta Mutrikuko Institutua, Mutrikun; eta OLH Ermua-Mallabia Oinarrizko Lanbide Heziketa Zentrua, Mallabian (Osma auzuan).

Azokara bisitan juandakuak Erdi Maillako eta Goi Maillako

espezialidade guztiak bertatik bertara zuzenian ezagutzeko aukeria aprobetxau eben.

Era guztietako 45 ziklo eskualdian

Gaur egunian 45 bat ziklo formatibo eskintzen dira Debarrenian, arlo profesional ezberdiñetara egokitutako eduki teoriko zein eta praktikekin. Gaur egunian 2.000 bat ikasle dagoz Lanbide Heziketako zikloren batian matrikulauta.

Eibarren, Lanbide Heziketia ikasi nahi dabenendako hiru ikastetxe dagoz aukeran: Armeria Eskolia, Uni Eibar-Ermua eta OLH Eibar Oinarrizko Lanbide Heziketa zentrua. Hõrren eskintzari esker, etxetik mugidu barik, Eibarren bertan sektore diferentietara bideratuta daguazten 19 ziklo ikasteko aukeria dago. Eta Eibarren ikasi leikiazenetatik kanpora eta etxetik oso urruti jua ba-

rik be aukera zabala dago beselako gauza batzuk ikasi nahi dabenendako: Elgoibarko IMH-n, Goi Maillako Lanbide Ziklo Industrialetan, "Fabrikaziõ mekanikoko diseiñua", "Fabrikaziõ mekanikoko produkziõaren programaziõua" eta "Mekatronika industrial" eskintzen dittue eta Erdi Maillako Heziketa Zikluak, barriz, "Mekanizaziõua" eta "Mantenu elektromekanikua" dagoz.

Meka Lanbide Eskolan, barriz, Erdi Maillakuak "Makinariaren elektromekanika", "Menpekotasun egoeria daguazeneri arreta", "Administraziõ kudeaketia", "Soldadura eta galdaragintza", "Erizaintzaren laguntza", "Ibilgailuen elektromekanikua" eta "Karrozerixia" dira eta Goi Maillakuak, barriz, "Metal eraikuntzak", "Haur Hezkuntza", "Automozioñua" eta "Administraziõ eta finantzak".



Herriko hiru ikastetxietan 19 ziklo ikasteko aukeria dago.

Ur jardueretarako trebakuntza

Gurian taillarretako jardunari horren lotuta egon diran lanbide eta zereginetatik kanpora be, horrelakuetatik aldentzen diran beste ofizio batzuetan trebatu nahi dabenak badakenu aukeratu, bestiak beste Mutrikuko ikastetxe bixetan emoten dittuenetako baten bat ikasitta: Kardala akuakultura eskoliak goi maillako teknikuak preparatzeko bihar dan guztia daka. Berez, akuakultu-

ria uretan animalixak, landariak eta algak hazteko jardueren multzoari esaten jako, horretarako teknika eta ezaguerekin batera. Jardueria itsasbazarretan ez eze, erreka, aintzira eta urmaeletan be garatu leike eta, horregaittik, ikasketiari lotutako lanbidiak ez dira gitxi.

Eta Mutrikuko institutuak Goi Maillako hiru ziklo eskintzen dittu: "Administraziñua eta finantzak", "Sistema elektroteknikuak eta automatizatuak" eta "Akuikultura". Eta,

ARMERIA ESKOLA

Erdi mailako heziketa zikloak:

- Instalazio elektrikoak eta automatikoak
- Mekanizazioa

Goi-mailako heziketa-zikloak:

- Telekomunikabide eta Informatika Sistemak
- Mantentze-Lan Elektronikoak
- Diseinua Fabrikazio Mekanikoan
- Automatizazioa eta Robotika Industrialak
- Mekatronika Industrialak
- Produkzioaren programazioa Fabrikazio Mekanikoan

UNI EIBAR ERMUA

Erdi mailako heziketa zikloak:

- Merkataritza Iharduerak (Merkataritza)
- Administrazio Kudeaketa (Administrazioa)
- Mikroinformatika Sistemak eta Sareak (Informatika)

Goi mailako heziketa zikloak:

- Gorputz eta Kirol-Ekintzen Sustapena (Gorputz/kirol-ekintzak)
- Administrazio eta Finantzak (Administrazioa)
- Nazioarteko Merkataritza (Merkataritza)
- Sareko Informatika Sistemak Administrazioa (Informatika)
- Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena (Informatika)
- Web aplikazioen garapena (Informatika)

EIBARKO OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETAKO UDAL INSTITUTOA

- Sukaldaritza eta restaurazioa
- Zurgintza eta altzariak

eskualdeko eskintzari egin desatagun erreparasua biribiltzeko, Ermua-Mallabia Oinarrizko Lanbide Heziketa zentruan "Ibilgailuen Mantentze-lanetako oinarrizko Lanbide Hezi-

ketia", "Elementu Metalikuen Fabrikaziñoko oinarrizko Lanbide Heziketia" eta "Ileapainketako oinarrizko Lanbide Heziketia" ikasteko aukeria be badago.

EGITARAUA

Topagunea (09:00)

Eibarko Klub Deportiboan (T. Etxebarria, 16)

Ibilbidea (09:00/11:00)

Denok elkarrekin egingo dugu Usartzaraino igoera oinez

OINEZ JOATEN EZ DIRENAK ZUZENEAN JOAN DAITEZKE USARTZARAINO

Landaketa (11:00/12:00)

Lau motatako 40 zuhaitz landatuko ditugu

Hamaiketako (12:00)

Indarrak berreskuratzeke lana egin ondoren

Ibilbidea (13:00/15:00)

Jaitsiera Eibarrera

Basoak: gure babesle

- Airea garbitzen dute
- Aldaketa klimatikoari egiten diote aurre
- Biodibertsitate iturri dira
- Fruituak ematen dizkigute
- Euri ura xurgatzen dute
- Airea iragazten dute
- Zarata gutxitzen dute
- Itzala ematen dute
- Egurra eta energia ematen digute
- Gure bizi kalitatea hobetzen dute

Zer landatuko dugu domekan?

- Lizarra
- Haritza
- Gorostia
- Urkia

Zuhaitz Eguna

igandean
Apirilaren
2an



Arte Batxilergoko ikasleak protagonista "Egungo islak" erakusketan

Azken urteotako martxari jarraituta, datorren asteko barixakuan, apirilaren 7an inauguratuko dute Portalean "Eibarko Ignazio Zuloagaren egungo islak" izenburuko erakusketa, institutuan Arte Batxilergo ikasten ari diren gazteen artelanak erakusteko. Angel Güenaga irakasleak azaldutakoaren arabera, "ikasketa artistikoak egitea hautatu duten ikasleen obrak jendearengana gerturatzea da erakusketaren xedea, horretarako ikasleek kurtsoan zehar gauzatzen dituzten artelanak plazaratuta. Betiko moduan, aurten ere ikasleek hainbat ikasgaitan landutako hamaika lan izango dira ikusgai: Marrazketa Tekniko eta Artistikoa, Diseinuaren oinarriak (barne diseinua, grafikoa eta industrial), Margogintza, Zeramika, Argazkigintza, Ikusentzunezko kultura... Artista gazteek, gelako egunerokotasunean gauzatzen dituzten lanak erakutsiko dira, hau da, ez bereziki okasio honetarako prestatutako artelanak, kurtsoan zehar klase ezberdinetan burutzen dituztenak baizik. Horregatik hartzen du erakusketak 'Ignazio Zuloaga Institutuaren Egungo Islak' izena".

Ekimen hau 1999-2000 ikasturtean jarri zen martxan lehenengoz eta, data kontuak tartean erakusketa urtero ospatzeko au-



kerarik izan ez bada ere, irakaslearen berbetan "urteen poderioz ohitura bihurtu da eta azken urte hauetan beti gorde izan da tarte bat Portaleko erakusketa aretoan ikasleen lanak hartzeko. Izan ere, ikasleentzako euren obrak herritarren eskutan jartzeko aukera paregabea eskaintzen du erakusketak. Bestalde, ikasleak pozik sentitzeaz gain, gurasoak ere oso harro azaltzen dira beti". Horrekin batera, urtean behin egiten den erakusketa taldean, denek elkarrekin lan egiteko primerako aitzakia ere bada, "izan ere, ikasleak bakar-

kako lanetan ez ezik taldeko lanean trebatzeko planteatzen ditugu horrelako jarduerak, elkarrekin lana nola egiten den ikas dezaten".

Aurtengo ediziorako prestatu dituzten berritasunen artean, nabarmenduko den bat aurreratu nahi izan digute: "Hain zuzen ere, gaurkotasan handiko gaiak irudikatzen dituzten 4x2 metroko mural bi eramango ditugu erakusketara". Erakusketa aste bitan, apirilaren 30era arte egongo da zabalik, martitzenetik domekara bitartean, 18:30etik 20:30era.



Aurten ez da Plazatik Gaztetxera txapelketarik antolatuko

Azken urteotan Markina-Xemein, Ondarru, Mutriku, Deba, Eibar, Sorluze eta Bergarako Gazte Asanbladako kideak ibili dira Plazatik Gaztetxera bertsolari txapelketa antolatzen, baina aste honetan aditzera eman dutenez, "XV. edizioaren ostean atseden urtea hartzea" erabaki dute txapelketa antolatzen aritu diren gaztetxe eta gazte asanbladetakako kideek eta, be-

raz, aurtengo udaberrian ez dugu bertsolari gazteen Plazatik Gaztetxera txapelketarekin gozatzeko aukerarik izango. Hala ere etengaldia behin-behinekoa izango da eta hurrengo urtean bueltan izatea espero dute: "2018. urtean edizio berri bat antolatzea dugu buruan, bertsolari gazteen bertsoez disfrutatu eta gaztetxeen arteko elkarlana indartzeko".



KOLDO MITXELENA ZUMARAN
3. URTEMUGA (2014-04-01)

Urak dakarrena urak daroa,
zuk emandakoa gurekin geratzen da.

ETXEKUAK

Gerritek

INFORMATIKA

info@gerritek.net www.gerritek.net
Txantxa-Zelai, 4-6. Tel. 943 03 38 92

**Marka guztietako zerbitzu
teknikoa eta salmenta**



**Neurrira egindako
software-aren garapena**

*Ezteiak eta
Jaunartzeak*

**-ESTETIKA
-MASAJEA**

Lakett

*Egun berezi horretan azal distiratsua
izan nahi baduzu,
zatoz Lakett-era*

Zezenbide, 4 www.lakett.com 943 53 00 66


Izadi
San Juan, 1
943 20 33 29



M A R S I



bidebarrieta, 1
943201626
639403457



Argazkia: Josu Torrealday

Eguraldi onarekin batera ospakizunak areagotu egiten dira gure artean. Maiatzeko jaunartzeak gain-gainean ditugu; bestalde, jakina denez, bikote gehienek eguraldi ona egiten duen sasoia aukeratzen dute euren ezkontzarako. Otorduak, bidaiak, jantziak, argazkiak, gonbidapen-txartelak, ilepaindegia, lore-sorta, eraztunak, haurrentzako opariak... Behar ditugun gauza guztiak eskuratzeko aukera zabala eta kalitatezkoa daukagu Eibarreneta inguruan.

Guby Chica



GU BY

J. Etxeberria, 4 Tel. 943 201 551



ROSANA
ILEAPAINDEGIA

943 120624

URKIZU PASEALEKUA, 7 - BEHEA

RPS 246/14

KERaLa JORGE DE LA GARZA MAKE UP

www.estetikakerala.es
www.cosmeticadelbienestar.es

Urkizu, 11 solairuartera 943 53 05 25

Makillajea Etxean Bertan

Estetika Tratamenduak, Manikura, Depilazioak, Emaztegaiendako BONO BEREZIA...



J. Salaberria
Bitxitegia



RELOJERIA
SALABERRIA

Errebal, 22
943 20 20 79

EZKONTZA tartak eta despedidak egiteko SASOZ ENKARGATU

ANTXON
DEGUSTAZIOA

T. ETXEBARRIA, 13
943 20 63 22



365 EGUN...



Argazkia: Josu Torrealday

12 hilabete lehenago...

LEKUA AUKERATU

Elizatik ezkondu edo ezkontza zibila eginda ere, kasu bietan nahi dugun data aukeratzea izaten dan gauzarik konplikatuena. Elizaren kasuan, gainera, ezkontza aurretik pausu asko eman behar izaten dira, apaizarekin bilerak, besteak beste.

8-12 hilabete lehenago...

JATETXEA

Jatetxeetako arduradunek diotenez, normalean ezkonkideak urtebete lehenago jartzen dira eurekin harremanetan, eta bakar batzuk askoz lehenago. Hilabete eta erdi lehenago menuaren desgustazioa egiteko ohitura daukate jatetxe gehienek.

9 hilabete lehenago...

EMAZTEGAIAREN SOINEKOA

Emaztegaiari buruhauste bat gehiago eragiten dio gaia izaten da hau. Disenatzaileek diotenez, prozesua lasaitasunez bizitzeko denborarekin ibiltzea komenia da. Hilabete hauetan ohikoa da soinekoa behin baino gehiagotan probatzea.

6-8 hilabete lehenago...

EZKON-BIDAIA

Ezkon-bidaia betirako oroimenean geldituko den esperientzia da. Bidai-agentziek hamaika aukera eskaintzen dituzte. Beraz, bidaia denborarekin erabakitzea komeni da.

ZUEN EZKONTZA PRESTATZEKO

6 hilabete lehenago...

ORRAZKERA

Ileapaindegietan hainbat proba egiten dizkiete emaztegaiei, soinekoa erosi den lekuaren arabera. Zenbait dendek edo firmek lanerako berezko sistema daukate: batzuk soineko froga bakarra eta beste batzuk bi egiten dituzte. Soineko frogetara orraztuta eta makillatuta joaten dira emaztegaiek.



Argazkia: Josu Torrealday

5 hilabete lehenago...

AGIRIAK

Ezkondu aurretik bikoteek hainbat tramite egin behar izaten dituzte. Ospakizunean funtsezkoak ez diruditen arren, paper hauek aurretik prestatu behar izaten direla ez ahaztea komeni da.



Argazkia: Josu Torrealday

4 hilabete lehenago...

EZKONDU EGINGO GARA!!!

Gonbidatu gehienak abisatuta egon arren, data, ordua eta lekua ofizializatzeko momentua iristen da eta hori gonbidapenen bidez egiten da.

Belaustegi Baserria

JATETXEA

Zure ezkontza zure neurrira!

www.belaustegi.com

San Migel gaina z/g
943 743 102
ELGOIBAR



WWW.J*SEBAJATETXEA.COM
FACEBOOK/J*SEBAJATETXEA

Aizkibel 10- Azkoitia
josebajatetxea@hotmail.com
943853412

Joseba
Jatetxea

365 EGUN...

3-4 hilabete lehenago...

SENARGAIA

Adituek esaten dutenez, 3 hilabeteko epea nahikoa izaten da senargaiaren jantzia egiteko. Jantzia aukeratu ondoren, 2 hilabete inguru behar izaten dituzte jostunek jantzia prestatzeko. 45 egun aurretik lehen proba egiten da, eta bi edo hiru aste lehenago, bigarrena.

3 hilabete lehenago...

BITXIAK

Ezkon-eraztunak 3 hilabete lehenago aukeratzea komeni da. Izan ere, dagoen eskaintza oso zabala denez, eta neurrira egin behar direnez, lasai begiratzea eta denborarekin ibiltzea gomendatzen dute arlo honen dihardutenek. Belarritako, gemelo edo mahuka-bikiak edo erlojuen kasuan, berriz, aski da aste batzuk lehenago erostea.

2-3 hilabete lehenago...

LOREAK

Lore-sorta, autoaren, elizaren edo mahaien dekorazioa... Lore baikoitzaren aukeraketak bere prozesua behar du. Lehen bilera 3 hilabete aurretik egitea gomendatzen dute lore-saltzaileek.

MARRODAN

BITXITEGIA
ERLOJUDENDA

T. Etxebarria, 24
Tel. 943 20 73 04



El jardín de tulipa
FLOWERS&DECO

El Corte Ingles-ean
943 20 88 47
645 67 85 76

spawellnessorbea @spawellorbea

otbea

SPA * WELLNESS


BEAUTY AND HEALTH
Tel. 943030015

BPXport
www.bpxport.es

VALENCIAGA

Ospakizun
guztietarako
behar duzuna

Bidebarrieta, 12
943-202233



Argazkia: Josu Torrealdy

2 hilabete lehenago...


DEKORAZIOA

Magia berezia lortu nahi badugu, ezinbestekoa da dekorazioari tarte bat eskaintzea. Nahikoa da bi hilabete lehenago pentsatzen hastea zein txoko dekoratu nahi ditugun eta nolako giropena eskaini nahi diegun gonbidatuei.

egun bat lehenago...

ERRETOKEAK

Soinekoa jaso, apaingarriak eta dekorazioa jabetxe, auto edo elizara eramán... Ez da komeni azken egunerako gauza larregi lagatzea. Ahal den neurrian, azken egun horretan gozatu egin behar da!



Argazkia: Josu Torrealdy

www.kantabriajatetxea.com
kantabria@kantabriajatetxea.com



**EZKONTZAK
 BATAIOAK
 JAUNARTZEAK**



Arrate Gaina, 4 • 279 Postakutxa • 20600 EIBAR • Tel. 943 121 262



RESTAURANTE KANTABRIA
 KANTABRIA.JATETXEA

Bidebarrieta, 5

Tel. 943 201 547

C A P I

www.capiestetica.es

Aurpegi tratamenduak



- Radiofrequentzia (zimurrak)
- Mesoterapia

**BETILE LUZAPENAK / LIFTING-A
 GEL ATZAZKALAK
 IA BETIRAKO MANIKURA
 eta PEDIKURA**

LASER DEPILAZIOA

30€

Hanka osoak + Izterondoak: 90€

zona
bakoitza

**GORPUTZ
 TRATAMENDUAK**

Powered by **BODY**

PROGRAMA BERRIAK

Tratamendu drainatzaile
 eta birmodelatzailearen

4 salorako bonoak

Masajeak



Pertsonalizatua

Twins
 Eibar

bidebarrieta, 8 • tel. 943 05 60 82

Roca
CALBETON, 16
-EIBAR-
TEL. 943 20 80 06

Ezkontza eta egun berezietan ZUREKIN!!

94 465 75 77
www.bagoaz.com

bagoaz Matienan gaude
Eibartik 10 minutura
(autopistan Abadiñoako irteera)

**BIDAIA PERTSONALIZATUAK
EZTEI BIDAIAK**

bidaiak f bagoazbidaiak viajes

CASTAÑO
PELUQUEROS

943 207047
Fermin Calbeton, 1

contacto@castanopeluqueros.es
www.castanopeluqueros.es

Bidebarrieta, 28

Tel. 943 20 79 73

Ezkontzetarako tartak eta opariak prestatzen ditugu



Argazkia: Josu Torrealday

ERAZTUNAK, BELAUNALDIZ BELAUNALDIKO OHITURA

Ezteietako beste gauzek bezala, eraztunek ere berezko esanahia daukate. Eraztunak trukatzeari belaunaldiz belaunaldi mantendu den ohitura da. Egipton esaterako, Kristo aurretik 3.000. urtean, eraztunak ematen zizkieten elkarri.

Hala ere, Grezian zabaldu zen (k.a. III. mendean) ezkon-eraztunaren erabilera, ezkerreko eskuaren laugarren atzamarrean jarrita: "amodiozkoa" izeneko zainak atzamarra bihotzarekin lotzen zuela uste zutelako. Ondoren, erromatarrek, eta kristauek geroago, ohitura horri eutsi zioten.

Gaur egun ezkonberriek ezkon-eraztun lisoak erabiltzen dituzte (gehienetan urrezkoak). Batzuk beste batzuk baino lodiagoak izaten dira, gustoaren arabera. Urreaz gain, zilarrez, platinoz eta titanioz egindako eraztunen aukera zabala dago bitxidendetan. Estilo desberdinak ere aurki daitezke: eleganteak, modernoak, kolore desberdinen konbinazioa, urre zuria, horia, bi koloretako urrea, textura eta tamaina desberdinak... Bikotekidearen izena edo inizialak eta eztei-egunaren data grabatu ohi da. Eraztunaren kopena, eskumako edo ezkerreko eskuan, tokiko tradizioaren arabera izaten da.



Argazkilaritzafestudio
WWW.JOSUTORREALDAY.COM
contacto@josutorrealday.com | 678950858



JAUNARTZEAK

Normalean familiarrean egiten den ospakizuna da jaunartzea. Beraz, elkarrekin ondo pasatzeko gauzak egiteko egun aproposa da. Detaileak zaintzen badira, egun zoragarria izan daiteke denontzat. Badakigu jatea garrantzitsua dela, baina, horretaz gain, badaude umeentzat inportanteagoak diren gauzak eta inoiz ahaztuko ez dituztenak. Giro polita eta dibertigarria sortzea izan daiteke oparirik ederrena, eta ahalegin txikiarekin emaitza paregabeak lor daitezke. Dekorazioaren barruan, kartelak, txarteltxoak, opariendatzako etiketak... erabil daitezke, eta merkatuan erraza da horrelakoak aurkitzea. Gozokiak eta reposteria kreatiboa ere erabili ditzakegu osagarri gisa.

Globoak umeei asko gustatzen zaizkien elementu dekoratiboak dira, eta bizitasuna ematen diote gelari edo aretoari. Paperezko globoak eta ponpoiak ere erabil daitezke.

Dekorazioaz gain, eguna animatzeko hainbat gauza egin daitezke: jokoak, tatuajeen postua, diskoteka txikia, magia-ikuskitzuna, puzgarriak, photocall-a... Diru asko gastatu gabe eta imaginazioa erabiliz, haurrentzako egun dibertigarria eta ahaztezina antola dezakezue. Ausartzen zarete?



Bauskain

FINCA

IRVIGIA
GRUPO
grupoiruna.net

"Esklusibotasuna, pribatutasuna eta gastronomia bikaina eskaintzen dizu Finca Bauskainek antolatzen zabilzan bataio, jaunartze edo ezkontza ospatzeko. Etorri eta ezagutu"







Markina Xemein
Telf. 94 424 9059
bauskain@grupoiruna.net
www.fincabauskain.com



Rosario
Gómez Rodríguez

Kenay
belleza natural

tcl. 688 896 291
San Juan 11-bis - I
20600 Elbar

Herri barruko Spa
Erlaxazioa eta ongizatea

Masajeak - Peeling
Buztinak - Bilgarriak

Tratamenduak
Aurpegirako
Gorputzerako
Makillajeak
Laser

Bach loreak
Eskuzko eta zentzumen-teknikak



**Azido hialuronikoko
ile-tratamendu berriak**

Khôl

Estilistak

Estaziño, 4 943 254776

fasprint

inprimategia

Aukera zabala ezkontza gonbidapenetan
Gonbidapen pertsonalizatuak argazkiarekin

Serigrafia eta argazki digitaleko errebelatua

Telf./Fax: 943 20 16 13 - Ego-Gain, 11 ac. - EIBAR
fasprintei@yahoo.es - www.fasprintelbar.com

Ezkontzak




T. 943 56 70 02 BISTA EDERA

EMAZTEGAIK BEREZIA

DENA 235€
BEZ BARNE

FOTODEPILAZIO 6 SAIO • FOTOGAZTEAGOTZE 3 SAIO • AZIDO HALURONIKO 2 ANPOILAK • AURPEGIRAKO EMULTSIOA 100 ML.

Hiru hautagairen artean egongo da Eibar FT- presidente izateko lehia

Aurreko asteko barixaku ganean amaitu zen Eibar FT-ko administrazio kontseilurako hauteskundearen hasierako prozesua eta, epea amaituta, hiru zerrenda aurkeztu dituzte hauteskunde kanpainarako: Amaia Gorostiza gaur egungo presidentea, German Albistegi oraingo kontseilurako

kidea eta Jon Sager AEBeta-ko akzioduna dira zerrendaburuak. Hauteskundeak ekainaren 1ean izango direnez, Hauteskunde Prozesua Antolatzen Batzordea orain hautagaiekin bilduko da bidea zehaztu eta egun horretako akziodunen batzarra nola antolatu erabakitzeko; iragarri du-



tenez, apirilaren 11n jakinaraziko du batzordeak nola egingo den prozesua. Lehen hauteskundeak izango dira Eibar FT-ren kasuan eta, dirudie-

nez, hiru hautagaiek bat egin dute Mendilibar entrenatzailearekin eta Garagarza kirol zuzendariarekin jarraitzeko asmoetan.

AMAIA GOROSTIZA, Jose Mari Arrizabalaga, Jose Miguel Fiallegas, Jon Ander Ulazia, Joseba Unamuno, Agustin Lahidalga, Javier Sarrionandia, Jose Antonio Fernandez, Leire Barriuso, Virginia Arakistain, Anton Martinena, Javier Gurrutxaga eta Alex Urizar.

GERMAN ALBISTEGI, Eduardo Trebiño, Unai Iraola, Aitor Andres, Javier Ariño, Kepa Osoro, Asier Garin, Bittor Garin, Javier Agirremalloa, Jose Miguel Egaña, Joseba Rokandio, Xepe Gallastegi, Miren Gisasola, Maialen Bergara eta Fernando Gutierrez.

Asteburu oparoa bizi izan zuten Deltecoko triatloilariek

Batez ere, zapatua egun biribila izan zen Eibarko triatloi taldeko ordezkariak. Ermuko duatloian taldekako txapela ekarri zuten Eibarrera, Julen Teranek juniorretan eta Iñaki Kondek beterranoetan euren mailatan nagusitzeaz aparte. Gonzalo Saez zortzigarren izan zen, Pablo Zabala 21. eta Fidel Gonzalezek 39. postuan amaitu zuen. Pello Osorok, bestalde, Arbizuko duatloia irabazi zuen eta, horrela, denboraldiko bigarren garaipena eskuratu, hurrengo egunean (domekan) bigarren postuan amaitzeko Durangoko duatloian. Roberto Gartzia eta Iñaki Kondek ere parte hartu zuten azken proba horretan.



Asola Berriko bolariak nagusi San Pedroko tiraldian

Lau bolarik berdindu zuten lehen postuan, euretako ba-koitzak bost txirilo etzanda, eta horietatik hiru Asola Berriko ordezkariak izan ziren. Ganix Rodriguezek irabazitako jardunaldian, Bittor Ugarteburu eta Ibai Diez taldekideek bostekoa bota zuten, San Migueleko Javier Osorok bezala. Laurekin geratu ziren Iñaki Gojenola eibartarra eta Mikel Almorza bergararra. Horko emaitzekin, Ganixek eta Ibai Diezek osatutako bikoteak binakako lehen postura egin du jauzi. Bihar Gipuzkoako txapelketa horretako hirugarren jardunaldia jokatu da Azpeitiko Garmendipen.



Jainaga eta Mendy atletak goi mailan

Klub Deportiboko atleta horiek denboraldi bikaina dihardute egiten eta lortutako markak hainbat txapelketetan parte hartzeko aukera eskaini dizkie. Horrela, Odei Jainaga Kanaria Handian jokaturako Europako jaurtiketen Kopan izan zen 23 urtetik azpiko selekzioarekin eta 9. postua lortu zuen jabalinarekin. Carlitou Mendy, bestalde, 7. izan zen Antequeran jokaturako Espainiako txapelketako jauzi hirukoitzean.

**KOMERTZIAL
TEKNIKARIA
behar da**



/ Erakutsitako balioaren arabera
BALDINTZA EKONOMIKOAK.
Enpresako AUTOA.

/ EUSKERA ETA INGELESA ondo
jakitea baloratuko da.

BIDALI CURRICULUM-a: quintana@murrplastik.es

www.kolorlan.com

667 54 89 16



KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L

Eskola eta amateur mailetakoko Ipuruako gimnasta guztiak sailkatu ziren finalerako

Eskola eta amateur mailetakoko Gipuzkoako txapelketan parte hartzen duten Ipuruako 14 gimnastek lortu zuten Eibarren maiatzaren 20an jokatu diren finalerako sailkatzea. Txapelketa horretako bigarren fasea jokatu zen aurreko zapatuan Ibarren eta hor Ipuruako jubenil A taldeak lehen postua eskuratu zuen, banaka Arrate Barojak lortutako bera. Irati Yarza izango da ordezkari bakarra seniorretan.

Bestalde, Gasteizen jokatu zen Oskitxo Torneoan Alaitz Aranbarrik urrea lortu zuen kadeetean eta, senior absolutu mailari dagokionez, Nahia Arguiz (zinta) eta Elene Varela (pilota) hirugarrenak izan ziren.


Donosti Torneoan ere maila bikainean jardun zuten eibartarrek eta, horrela, Elene Varela 2. izan zen zintarekin eta postu bera lortu zuen Jennifer Hernandezekin. Bihar Eskola B mailako gaztetxoek finalerako txartelaren bila lehiatuko dute Bergaran.



Elene Varela eta Jennifer Hernandez, bigarrenak Donosti Torneoan.

Xakeko talde biek bina berdindu zuten

Gipuzkoako 1. mailako Klub Deportiboko lehen taldeak bina berdindu zuen Eibarren Mekatar Elgoibarrek. Xabier Beorlegik irabazi egin zuen, Mikel Larreategiri galtzea egokitu zitzaion, eta Jon Aranak eta Jose Antonio Garridok parra egitea onartu zuten. Bestalde, Azkoitian jokatuak 3. mailako norgehiagokan, Deporrek bigarren taldeak Chessberriekin berdindu zuen: Adrian Martinikorena eta Lander Aja garaile izan ziren, eta Aitor Beorlegi eta Oier Garcia galtzaile.



Eibarko Duatloia jokatu da bihar arratsaldean

Eibarko XXVI. Duatloiak, gainera, Gipuzkoako Duatloi Sprint txapela eta Euskadikoa izango du jokoan. Proba 16:45ean hasiko da emakumeendako eta hiru minutu geroago gizonendako. Delteco Eibar Triatloi Taldeak Eibarko Udalarekin eta Gipuzkoako eta Euskadiko Triatloi Federazioekin elkarlanean antolatutako probaren boxeak Untzagan kokatuko dira. Lasterketa antxixiketaren egingo dituzten 5 kilometroekin hasiko da, jarraian bizikleta hartu eta beste 18 osatzeko eta, ondoren, bi kilometro eta erdiko antxixiketaldia izango dute proba amaitzeko. Sariak 200, 150 eta 100 eurokoak izango dira lehen hiru sailkatuentzat, maila guztietako irabazleentzako garaikurrez aparte.



Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>Bulegoa Bidebarrieta, 20</p>	
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	



EIBARKO BIZIKLETA

TXIRRINDULARITZARAKO
GUZTIA (salmenta eta konponketa)

BIZIKLETAK • ALDAGAILUAK • OSAGIAK • ERROPA • OINETAKOAK



GIANT



CENDOR

ENJOY THE RIDE

Andoni Retenaga
zure konfidantzagako mekanikaria
andoni@ciclalia.es

Karmen kalea, 4
943 530 212

ORDUTEGIA
astelehenetik ostiralera: 10-13/16-20 zapatuetan: 10-13

Eguazten arratsaldean aurkeztu zuten Valenciaga Memorialaren 46. edizioa. Domeka goizean jokatuko den proba horrek, ohikoa denez, afizionatuen mailako estatuko talde nagusienak batuko ditu, denek ere Espainiako Koparen lehia sartuta. Eibarko Txirrindularitza Elkarteak antolatzen duen lasterketak 164 kilometro izango ditu, Itziar, Meaga, Elgeta, Areitio, Ixua eta San Miguel gainekin, parte hartuko duten 28 taldeetako 196 txirrindulariek ikuskizuna eskaintzeko ibilbide ezin aproposagoan. Helmuga oraingoan ez da Armeria Eskolaren parean egongo, San Andres parrokiaren parean baizik. Angel Lopez CCE-aren presidente berriarekin egoteko aprobetxatu dugu.

ANGEL LOPEZ (Eibarko Txirrindularitza Elkarteko presidentea):

“Esperientzia eta gaztetasuna batzea lortu dugu zuzendaritzan”



Angel Lopez, De los Toyos alkatea
eta Gorostiza Eibar FT-ko
presidentearekin.

– **Presidente kargua hartu berri duzu. Zenbat urte Eibarko Txirrindularitza Elkarteak?**

Aspaldiko harremana da gurea: 30 urte pasatxo bazkidea naizela eta zikloturismoa praktikatzen. Gero semea txirrindulari probetan hasi zen eta bera jarraitzen 2012tik aurrera kolaboratzen hasi nintzen. 2014tik batzarkide lanetan jardun izan dut eta 2016ko batzarrean presidente hautatu ninduten.

– **Zein egoeratan dago elkarteak, 91 urte egiten dituen honetan?**

Elkarteak une onak eta txarrak izan baditu ere, bizi izan dugun krisialdi ekonomikoari aurre egin dio behintzat. Orain dela bi urte babesle bat erori eta kadete mailako karrera bat galdu genuenez, 2018an berreskuratzen ahaleginduko gara. Udalen eta beste babesleen laguntzarik gabe ezingo genukeen jarraitu. Eta Eibar FT-ko Fundazioarekin aurten sinatutako akordioa

guretzat bultzada indartsua da. Elkarte batzordean jende berria sartu da: Beñat Urain (lasterketako zuzendaria), Joxemari Gerra (idazkaria) eta Julen De Blas (gidaria). Beñat eta Julen, gainera, txirrindulariak izandakoak dira, eskarmentu handikoak. Esperientzia eta gaztetasuna batzea lortu dugu eta pozik gaude. Beraz, 100. urteurrenari begira badago ilusioa.

– **Txirrindularitza zaletuen artean aldatetarik nabaritu da azken urteotan?**

Hausnarketa txiki bat eginda, kirola egitea gustatzen zaion taldearen arloa hazten joan da azken urteotan: zikloturismo, duatloi edo triatloi probek gero eta parte-hartzaile gehiago dituzte. Zaletuei dagokienez, bestalde, laranja jantzitako uholdea Euskaltel desagertuta jaitsi egin dela dirudi, baina hemengoa moduko afiziorik ez da ikusten inon eta horrek lanean jarraitza bultzatzen gaitu.

– **Afizionatu mailako onenak izango dira aurten ere Valenciaga Memorialean? Zenbateko aurrekontua du probak?**


Valenciaga aspalditik da erreferentia estatuko txirrindularitzan. Izan ere, proba irabazleak profesioalera jauzia egiteko txartela eskura izaten du gehienetan. Espainiako Kopako talde onenak hor izango dira, gonbidatutako beste birekin batera: Eibar Energia Hiria - Debarrena eta Eulen. Azpimarratzekoa da Caja Rural Gonzalo Serrano Espainiako Kopako liderarekin etorri dela eta Ampo iaz profesioalera jardundako Ermuko Peio Goikoetxearekin. Aurtengo aurrekontua 40.000 eurora hurbiltzen da, iaz baino 10.000 gutxiago (iaz klubaren 90. urteurren ospatu genuelako).

– **Ibilbidean zeintzuk dira aldateta nabarmenenak?**

Oraingoan azken urteotan egin den ibilbidea aldatu nahi izan dugu, beste sasoi bateko ibilbidea berreskuratuta; horregatik, Elgeta Bergatik igoko dugu eta Ixua Eibartik, ikuskizuna berpizteko asmoz, batez ere mendi ginetik pasatzerakoan.

– **Podiuma eta emakumea: zein asmo duzue sariak banatzerako orduan?**

Australian azafaten irudia kentzea erabaki zenean horrek gudan ere izan zuen eragina. Alde batetik, irudi sexista eta anarkonikoa iruditzen zitzaigulako eta, bestetik, sentsibilitate handiko gauza delako. Hemendik aurrera, azafatak egon beharrean podiumeko laguntzaileak izatea erabaki dugu, izan gizonak, izan emakumeak. Hala eta guztiz ere, ikuskizuna hortik kanpo dago: txirrindulariek errepedeetan ematen dutena da garrantzitsua.



XLVI. VALENCIAGA OROITZARREA (apirilak 2)



GARAILEA



MENDIA



23 URTETIK AZPIKO ONENA



SAIATUENAREN SARIA



SPRINT BEREZIA



TARTEKO HELMUGAK



LEHEN EUSKALDUNA

TALDEKAKO SAILKAPENA: Eibarko Txirrindularitza Elkarteak / DEBABARRENAKO ONENA: Goritz Hornikuntzak, S.A.



UDABERRI SARIA
otsailak 26



CCE SARI NAGUSIA
apirilak 9



SAN JUAN SARI NAGUSIA
ekainak 18



PEDAL EGUNA (irailak 17): Birjiñape kafetegia

LAGUNTZAILEAK

- Eibarko Udala
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Eibar Kirol Elkarteak Fundazioa
- Udal Kirol Patronatua
- Radio SER Eibar
- Izadi Loradenda
- Zirauna (Kirol Jantziak)
- Birjiñape Kafetegia
- Ketesa
- Casa Cantabria
- Inpratex
- Gestilan - Aholkularitza
- El Corte Inglés - Eibar
- Goritz Hornikuntzak, S.A.

- Marqués de Saka Ganadutegia
- Oishi
- Azitain Jatetxea
- Mapfre
- DYA - Eibar
- S.C.R.G. Bide-Alde
- S.C.R.G. Kamarroak
- Trinkete Garagardotegia
- CDR-Bikes Eibar
- Ongi Etorri Kafetegia
- Casa Galicia
- Pneumax
- Kantoi Zerbitzu Estazioa
- Oberena Harategia

- Ezpeleta Ehun-Ostalaritza
- El Castillo Hotela
- Perlakua Agroturismo-Jatetxea
- Kalitatea
- Ikolan Lanaldi
- Guria Elektrizitatea
- Arkupe Gastro Pub
- Hotel Unzaga Plaza
- Avia
- Naia Car-Kia
- Larragest Inmobiliaria/Aseguruak
- Bista Eder Hortz-klinika

Eibartarrek antolatutako Euskal Herriko Itzuliaren aurrean

Astelehenean hasi eta zapatara arte jokatu den Euskal Herriko Itzuliaren 57. edizioak hainbat aldaketa izango ditu, tartean antolatzaile arloan eman dena. Lehendik zeudenetik erdiek laga egin dute lasterketa hori eta Donostiako Klasikoa prestatzeko lanak, eta bere sasoiari Euskal Bizikleta antolatzen jardun zutenek hartu dutelako erronkari eusteko erantzukizuna. Eibartarrez osatutako lan-taldea epeak betetzeko larri ibili bada ere, interes handiko Itzulia prestatu du, "oraingoan aukera gehiago eskainiz helmugetan sprinta jokatzeko prest" dauden txirrindulariei. Hala ere, izango da mendirik proban, 19 hain zuzen ere: 1. mailako lau, 2. mailako zazpi eta 3. mailako beste zortzi. Lasterketak, gainera, Hegoaldeko lau hiriburuak lotuko ditu, guztira 625 kilometroko ibilbidean. Antolatzaileek diotenez, "ibilbidea leunagoa bada ere, txirrindulariak dira gogortzeko ahalmena dutenak". Gure herriak bariak hartuko helmuga hartuko du Arraten, ohikoa denez, eta zapatukoak Eibarren izango du bai irteera eta baita helmuga ere, tartean Bergararaino joango den 27 kilometroko erlojupekoarekin.



Diego Rosak iaz Arraten irabazi zuen unean.

Izen handi asko 20 taldetan

Trek-Segafredo (Contador, Cardoso, Zubeldia)
AG2R La Mondiale (Bardet, Bakelants, Vuilleumoz)
Astana Pro Team (Luis Leon Sanchez, Pello Bilbao, Fuglsang)
Bahrain-Merida Pro Cycling (Ion Izagirre, Bole, Visconti)
BMC Racing Team (Samuel Sanchez, Caruso, Moinard)
Bora-Hansgrohe (König, Buchmann, Pelucchi)
Caja Rural - Seguros RGA (Pardilla, Alex Aranburu, Jon Irisarri)
Cannondale Drapac Team (Uran, Clarke, Talansky)
Cofidis Solutions Credits (Dani Navarro, Edet, Maté)
FDJ (Molard, Roux, Vaugrenard)

Lotto-Soudal (Wellems, Monfort, Valls)
Movistar Team (Valverde, Gorka Izagirre, Soler)
Orica-Scott (Adam eta Simon Yates, Gerrans, Kreuziger)
Quick-Step Floors (Alaphilippe, Cavicchi, De la Cruz)
TeamDimensionData (Omar Fraile, Igor Anton, Cummings)
TeamKatusha - Alpecin (Spilak, Machado, Vicioso)
TeamLottoHI - Jumbo (Roglić, Bennett, Lobato)
Team-Sky (Sergio Henao, Kwiatkowski, Nieve)
TeamSunner (Barguil, Keldermann, Matthews)
UAE Abu Dhabi (Ulissi, Atapuma, Meintjes)

astelehena, apirilak 3

Iruñea / Egesibar-Sarriguren
(153 km.)

martitzena, apirilak 4

Iruñea / Eltziego
(175 km.)

eguztina, apirilak 5

Gasteiz / Donostia
(160 km.)

eguztina, apirilak 6

Donostia / Bilbo
(174 km.)

barixakua, apirilak 7

Bilbo / Arrate
(140 km.)

zapatua, apirilak 8

Eibar / Eibar
(27 km.)



JUAN SUSAETA URKIDI

(2017ko martxoaren 20an hil zen, 87 urterekin)

**"URAK DAKARRENA URAK DAROA
ZUK EMANDAKOIA GUREKIN GERATZEN DA"**

Fundatzaileetako izan zen Juan lagunari, eskerronez
ESTRELLA SOZIEDADEKOOK



Egitarau berezia antolatu dute bonbardaketaren 80. urteurrenaren harira


Eguazten goizean emandako prentsaurrekoan eman zituzten ezagutzera Eibarko bonbardaketaren 80. urteurrena dela eta gurean egingo diren ekitaldiak. Miguel de los Toyos alkateak, Idoia Sarasqueta Ego Ibarra batzordeburuak, Patxi Lejar-di Kultura zinegotziak eta Jose Luis Gonzalez "Poxpolo" Kultura teknikariak aurkeztutako egitaraua apirilaren 25ean hasiko da, egun horretan Juan Pablo Fusi Aizpurua historialariak Coliseoan emango duen hitzaldiarekin. Aurreratu dutenez, katedratikoak gerra zibilari buruzko hausnarketa sakona egingo du.

Bestalde, Arrateko interpretazio zentroaren osagarri gisa mugikorrenzat sortutako aplikazioari gerra zibila herri barruan ezagutzeko ibilbideak gehituko dizkiote eta apirilaren 25etik aurrera eskurgarri ipiniko dituzte, nahi duenak doan jaitsi eta erabiltzeko aukera izateko. Horrekin batera, Egogain kalean (sasoi hartan

O'Donell izena zuen kalean), Labadero-kua gerra-babeslekuan bonba batek jo eta lurtean zulo ikaragarria zabaldu zen tokian, hori irudikatzen laguntzeko, joko bisual modukoa egiten duen teknikaz baliatuko dira.

Hitzaldi dramatizatua

Hortik aurrera, ekitaldi ezberdinak antolatu dituzte apirilaren 30era arte: apirilaren 28an, Coliseoan, "Bonbardaketak 1937 Eibar. 80 urte" hitzaldi dramatizatua eskainiko dute Jesús Gutierrez historialariak, Nerea Arriola biolin-jotzaileak, Biraka Dantza Taldeak, Koro Gazteak, Kezka Dantza Taldeak, Lekim animazioak taldeak, Itzamna akademiak eta herriko antzezleek, guztira 100 bat lagunek. Apirilaren 29an, berriz, gerra aurreko Eibarko planoa marraztuko da klarionez Untzaga plazan eta gauean berriro eskainiko da Coliseoko dramatizatua, baina oraingo ho-



netan kalean, Untzagan, harmailen aldean. Egitaraua biribiltzeko, apirilaren 30ean Cielito musika bandak kontzertu berezia emango du Coliseoan, gerrako filmetako soinu-banda ezagunek osatutako egitarauari jarraituta.



Leire Narbaiza eibartarra da txiolari saiatuena

Codesyntax enpresak Twitterreko iazko euskarazko jariora aztertu du eta, hortik ondorioztatzen denez, ia beti euskaraz egiten duten lagunak 2.500 omen dira. Azterketa horren arabera, gainera, Leire Narbaiza (Txargain) gure kolaboratzailea da euskal txiolari aktiboena ranking horretan. "Kalamuatik Txargainera" bloga ere gobernatzen du Narbaizak eta, besteak beste, hizkuntzaren eta emakumetasunaren inguruko gaiak jorratu ohi ditu.

Argazkilaritza Maiatzean ate joka Jon Gorosperen tailerrarekin

Aurtengo edizioan ere denetarik izango du Argazkilaritza Maiatzean-eko egitarauak, gizarte dokumentu gisa balio historiko indartsua duten argazkietatik hasi eta paisaia handi eta sormenez gainezka dauden irudietaraino. Eta hor Jon Gorospek "El proyecto fotográfico" argazkilaritza tailerra eskainiko du, "argazkiari zer atera, berarekin zer kontatu eta bertan zer ikusi" erakutsiko duena. Astelehenean zabalduko da bertan izena emateko aukera, argazkilaritza@deporeibar.com helbidera e-maila bidalita. Plan bikaina da antolatzaileen esanetan, "argazkiak eta ezagutzak partekatzeak aukera" emango duelako.



Timoteo Lazpita Areitiobiritxinaga

1. URTEURRENA: (2016-IV-1)



Zu joan zara, baina zureganako gure maitasuna ez. Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza.

ETXEKOAK





ASIER SOTA
(aktorea)

“Barruko amorrua bideratzeko mekanismoa da foballa askorentzat”

Antzerki Jardunaldiak agurtzeko, Borobil Teatroa taldekoek “Fuera de juego” / “Jokoz Kanpo” eskainiko dute apirilak 5ean, 20:30ean, gazteleraz eta 6an, 20:30ean, euskaraz. Euskarazko bertsioako aktoreak Joseba Apaolaza, Asier Hormaza eta Asier Sota dira, eta azken honek antzezlaren nondik norakoak kontatu dizkigu. Antzezlanak txartel gorria ateratzen die foballaren inguruan dauden hainbat jarrereri.

– Zertan datza ‘Jokoz kanpo’ antzezlana?

Umeen foball entrenatzaile biri egiten zaien epaiketa da berez. Publikoak epaiketa horretan esaten dena ikusten du, eta flashbacka erabiltzen dugu gertatutakoa kontatzeko. Entrenatzaileek elkar joka amaitzen dute. Hori epaiketa hasieran aipatzen da jada, eta elkar jotze horretara nola iristen diren ikusten dugu, biolentzia erabiltzera haurren arteko partidu batean, hain zuzen.

– Zein da zure rola antzezlanean?

Paper ezberdinak egiten ditugu Joseba (Apaolaza), Asier (Hormaza) eta hirurok. Umeak antzezten ditugu, gurasoak, entrenatzaile moduan ere aritzen dira eurak biak, nik aitonarena egiten dut... pertsonaia ezberdinak.

– Nolanahi ere, errealitatean oinarritzen den antzezlana da.

Anartzek (Zuazua) antzerki lan hau egiteko gaia atera zuenean errealitatean oinarritu zen, baina gerora konturatu gara, foballarekin berbetan edo berrietan irakurtzen, errealitateak fikzioa gainditzen duela. Motz geratzen gara batzuetan errealitatean gertatzen dena ikusita. Hori erakusten saiatzen gara eta baita nondik datorren ere, foballarekin zerikusirik ere ez daukala askotan. Norberak barruan daraman amorrua bideratzeko erabiltzen duen mekanismoa da foballa askorentzat.

– Umorearen aldetik tratatzen duzue gaia?

Komedia da, baina oinarri dramatiko dauka. Jendeak barre asko egiten du, baina Anartzek ere buruan zera zeukan:

antziketik ateratzean ondo pasatu dugula pentsatzea, barreak bota ditugula, baina antzezlana utzi dizun mezu indartsuaz jabetzea. Publikoak erraz enpatizatzen du. Foball munduko profesionalak ikusi dutenean, egia asko esaten ditugula aitortu digute.

– Horrelako gai serioek eragina izateko, komedia bide ona da?

Bai, bestela mundu panfletarioan sartzen zarelako, eta jendeak betiko berriketaldia moduan hartu dezake eta jaramonik ez egin. Hemen ikusten duguna da egia handi bat kontatzen dela komediatik abiatuta, eta mezua errazago sartzen da. Hala ere, komedia erabiltzeagatik ez diogu gaiari garrantzia kendu nahi. Nahita erabili den tresna da komedia, mezua hobeto sartzeko.

Banatu dituzte “Eibar aldeko euskara hiztegia” argazki lehiaketako sariak

Astlehenean banatu zituzten Udalak eta herriko euskaltegi biek antolatutako “Eibar aldeko euskara hiztegia” Argazki Digitalen lehiaketako sariak, Portalean. Epaimahaiak aukeraturako saria Elena Pallejak jaso du, “pegora” adierazten duen erretratuari esker. Irabazlea Tarragonakoa da eta orain dela gutxi hasi da euskera ikasten. Argazkia Estaziño kaleko ate bati atera zion eta pozarren hartu zuen saria. Beste saria, Eibarko Euskararen web orrian boto gehien (90) jaso dituenari emandakoa, Lu Carballoren “antiparrak” argazkiak eraman du, baina irabazlea ezin izan zen egon saria banatzeko ekitaldian eta, beraz, beste momentu batean emango diote.



Liburu “Magikoak” Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko

Juan San Martin liburutegiak “Ez da magia, errealitate areagotua da” izenburuko tailerra antolatu du datorren eguenerako, Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna dela eta. Umeen liburutegian izango den ekimena 5-8 urte bitarteko haurrentzat pentsatuta dago eta 17:30ean hasiko da (iraupena 30-40 minutukoa izango da). Antolatzaileek azaldu dutenez, “tailer honetan haurrek errealitate areagotua erabiltzen duten liburuak ikusteko aukera izango dute. Magikoak dirudite, pertsonaiek bizitza hartzen dute eta. Horrekin batera, errealitate areagotura gerturatzeko marrazki batzuk egingo dituzte eta marraztutakoa 3-Dn ikusteko aukera ere izango dute”.



Perlak kontzertuan Belekon

Korrika Kulturalaren egitarauaren barruan, ...eta kitto! Euskara Elkartearen laguntzarekin antolatuta, Miren Narbaiza eibartarra kide duen Perlak taldeak kontzertua emango du domekan Beleko tabernan, 19:00etan. Taldeak bere bigarren diskoa, "Itzaletatik" izenburukoa, aurkeztuko du zuzeneko emanaldian.



"Beldurrak" ipuin kontakizuna

Martitzenean, 19:00etan, Xirrikituen Jostunek "Beldurrak" izenburuko ipuin kontakizuna eskainiko dute euskeraz, Portaleko areto nagusian, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik eta Illunabarrian egitasmoaren barruan. Ordu bete inguruko iraupena duen lana gazte eta helduentzat pentsatuta dago eta sarrera doan izango da.

Musika Bandaren kontzertua etzi

Eibarko Cielito Musika Taldeak, ohiko martxari jarraituta, kontzertua emango du domekan, 12:30ean Coliseoan. Carlos Sanchez-Barbak zuzenduko duen emanaldian egitarau honi jarraituko diote: "Evocación" (martxa, E. Cebrian), "Obertura de Cándida" (I. Bernstein), "Aires Vascos nº2" (herrikoia, J. Franco), "El Niño Judío" (zarzuela, P. Luna) eta "El Padrino" (BSO, Marcel Peeters-en konponketekin). Kontzertuaren aurretik, euririk ez badu egiten, 11:15ean kalejira egingo dute.

Idazlearekin Harixa Emoten

Martitzenean izango da Idazlearekin Harixa Emoten euskerazko irakurketa klubaren hurrengo saioa, 19:00etatik aurrera Portalean. Antxon Narbaizak dinamizatu duen saioan Arrate Egaña idazleak hartuko du parte, "Paradisua" bere lanari buruzko gogoetak irakurleekin batera komentatzeko.



Gaur zabalduko dute Eibarko Artisten Elkartearen erakusketa


Urteroko moduan, Eibarko Artisten Elkarteak erakusketa kolektiboa antolatu du eta gaurtik aurrera Portaleko erakusketa aretoan egongo da ikusgai, apirilaren 23ra arte. Taldekako erakusketan Artisten Elkarteko 40-45 bat kideren lanak bildu dituzte, "pare bat artista bakoitzeko" eta teknika guztiak erabilitako artelanak ikusteko tarteak izango dute bisitan doazenek: pintura, egur-tailak, eskulturak, grabatuak, zeramika, argazkiak...

Batukada feminista osatzeko deia

Nalua taldekoek Eibarren batukada feminista talde bat sortu nahi dute eta, jendea animatzeko, "emakumeon ahalduztarako tresna baliagarria izateaz gain, gozatzeko, elkar ezagutzeko eta festarako aukera ere badela" diote. Interesa izanez gero, 697211272 telefonora deitu edo nalua.feministak@gmail.com helbidera idatzi daiteke.


"Zura" dokumentala

Astelehenean, 19:00etatik aurrera "Zura" dokumentala emango dute Coliseo antzokian, Korrika Kulturalaren barruan udalaren laguntzarekin antolatutako proiektioan. Pelikula egitasmo honen helburu nagusia basoaren, zuraren eta euskal gizartearen arteko harremanak izan duten, gaur egun duten eta izango duten balioa gizarteratzea da. M^a Jose Barriola Baraibarrek sortu, sustatu eta zuzendutako proiektuari lotutako filma Jon Maia Soriak zuzendu du.



Aldaketak Coliseoko zinean

Zapatuan 17:00etan eta astelehenean 20:30ean Coliseoan ez da zine emanaldirik izango, egun bietan aretoa beste ekitaldi batzuetarako erabiliko dutelako.



martxoaren 3tik apirilaren 6ra arte

“Cervantes ejemplar” (Micomicon)



31n (barixakua), 20:30 / 90 minutu

Coliseoan / 12 euro / KOMEDIA

ANTZEZLEAK: Manuel Agredano, Elisabet Altube,...
ZUZENDARITZA: Laila Ripoll

Agredano Narruzko Zezen taldeko kide-ohia dator Micomicon talde handiarekin erritmo eta lengoaia zinematografikoa duen lana antzetzera. Horrek nabaritu egiten ditu entremeseetan hain ohizkoak diren arlo komikoak eta tragikoak.

“Festara!!!” (Tomaxen Abenturak)

1ean (zapatua), 17:00 / 60 minutu

Coliseoan / 5 euro / HAUR ANTZERKIA

ANTZEZLEAK: Joserra Fachado eta Jaione Zulaika
ZUZENDARITZA: Joserra Fachado

Zahar eta gazteak gonbidatuta zaudete ospakizun xeble honetara! Edozein herriko jaietan bezala! Tomaxek eta Musugorrik jairik jai eramango gaituzte-eta. Egitaraua ohiko pregoiarekin hasiko da, ondoren txupinazoa, jarraian kalejira txarangarekin, bigantxa entzierroa, magia jolasak, buruhandiak...



“La educación de los cerdos” (Narruzko Zezen)

2an (domeka), 20:30 / 50 minutu

Hezkuntza Esparruan / 5 euro / KOMEDIA

ANTZEZLEAK: Mireia Diaz, Asier Gonzalez, Viviane Straub,...
ZUZENDARITZA: Manolo Murillo eta Juan Ortega

Roald Dahi idazle britainiarraren La Cata ipuinean oinarrituta dagoen lana umore makabro eta ironikoaz baliatzen da gizarte burgesaren kritika zorrotza egiteko. Amildegian eroritako gizartea azalduko zaigu aurrean. Umore asko, ezustekoak, suspensea eta inor espero ez duen amaiera izango ditugu zain.

“Incendios” (Ysarca Art Promotions)

4an (martitena), 20:30 / 180 minutu

Coliseoan / 15 euro / DRAMA

ANTZEZLEAK: Nuria Espert, Ramon Barea, Edu Soto,...
ZUZENDARITZA: Mario Gas

Antzezlan honek jatorriaz eta birsortzeaz hitz egiten du eta, norberak bere burua aurkitzeko, baita batzuetan ere behar diren suteetat. Gerra giroan bizi den edozein emakumeren egia kontatzen den moduan, hor dago herrialde oso batena ere. Tragedia bikaina, ikusleen kontzientzia astintzeko asmoarekin.



“Fuera de juego” / “Jokoz kanpo” (Borobil)

5ean eta 6an, 20:30 / 70 minutu

Coliseoan / 12 euro / KOMEDIA

ANTZEZLEAK: Mikel Pagadi, Nagore Aranburu eta Anartz Zuazua
ZUZENDARITZA: Anartz Zuazua

Eguztenean gazteleraz eta eguenean euskeraz eskainiko du Borobil Teatroak lan hau. Joseba Apaolazak, Asier Sotak eta Asier Hormazak osatuko dute bigarren hirukotea. Foballaren inguruko hainbat topikoekin batera, kirol horrek bizitzari buruzko ikasgai sakonak ere badakiela ematen erakutsiko digute.

XXII. BERDEL EGUNA

2017
Apirilak 1
MUTRIKUN

Marrazak 24, Ostirata BERDEL ARAINA

YURITA KONTEJAN (Arizasa)
(G) Jaiaberriak: Gasteiz, Alpetarra, Arango, 2016
Osoa: 2016
Leku: Osoa

Apirilak 01, Larunbata BERDEL EGUNA

10:00 ZAZPI PUNTA TIAPIKETA
ELIZAGAIKO GORRUKI TIAPIKETA
Muskulu-Iturria
Astelehenetik Asteartera: 16:00tik 18:00tik

18:30 EPLUKIARAKI BATEL LISAKO XI JARDUNALDIA
Astelehenetik Asteartera: 18:00tik 19:30tik

12:30 MUTRIKUN XI: MELAJUNTZEN TAATUEKETA ISSAS

Berdel Eguna MUTRIKUN

Bihar ospatuko dute Berdel Eguna Mutrikun. Goizetik hasiko da egitaraua, jaja girotzeko antolatuta dituzten hainbat jarduerarekin. Eguerdian berdel pintxoak banatuko dira doan eta 18:00etan berdel pintxo herri dastaketa hartuko du portuak. Itziarren Semeak taldeak 20:00etan emango duen kontzertuak agurtuko du jaja.



Antzerkia ERMUAN


Gaur 22:15ean Ermua Antzokian "25 años no es nada... pero dan para mucho" taularatuko du Izarraitz taldeak. Alain Kortazarrek zuzenduta, Asun Morales, Emi Castañeda, Isi Gutierrez, Mari Carmen Soria, Tere Romero eta Socorro Cebrian antzezleek jardungo dute. Sarrerak 8 euro balio du.



Aurreku eta Soinu Zaharra ELGOIBARREN

Euskal Herri osotik etorritako 58 dantzari gaztek hartuko dute parte asteburuan Elgoibarko Herriko Antzokian izango den XVI. Elgoibarko Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketan. Bihar eta etzi jokatu da: lehen jardunaldian 7-11 urte bitarteko neska-mutilak lehiatu dira (16:00) eta domekan, berriz, 11-15 urte bitartekoen txanda izango da, 11:00etatik aurrera.

eguraldia (EUSKALMET.NET)



hildakoak

- Jose M^a Lazkano Lazkano. 79 urte. 2017-III-26.
- Agustin Albarran Martinez. 79 urte. 2017-III-26.
- Lourdes Andueza Zubizarreta. 88 urte. 2017-III-28.
- Pakita Alberdi Arakistain. 95 urte. 2017-III-29.
- Justina Martinez Fuldain. 98 urte. 2017-III-29.

jaiotakoak

- Martin Gallastegi Ruiz. 2017-III-23.

farmaziak

- Barixakua 31
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Zapatua 1
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- Domeka 2
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- Astelehena 3
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- Martitzena 4
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Eguaztena 5
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Eguena 6
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Barixakua 7
EGUNEZ **Lafuente** (Sostotarren, 10)

GAUEZ BETI - 2017AN-
Mandiola (S. Agustin, 3)

SUDOKUA

2								
6		4		1	5			
		5	9	3	8			
		2					3	7
3			8		2			1
8	9					6		
			1	8	7	2		
			4	2		1		6
								9

3	7	6	4	2	9	5	1	8
5	2	1	7	3	8	9	4	6
9	8	4	1	6	5	2	7	3
1	4	8	2	9	7	6	3	5
2	6	3	5	4	1	7	8	9
7	9	5	6	8	3	4	2	1
4	5	2	8	1	6	3	9	7
8	3	7	9	5	4	1	6	2
6	1	9	3	7	2	8	5	4

AURREKOAREN
EMAITZA

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

Barixakua 31

TAILERRA

17:00. "Kamiseten diseinua". Jazinto Olabe ludotekan.

EIBARKO KANTUZALEAK

17:00. Abesbatzaren emanaldia San Andres zaharren egoitzan.
19:00. Kalejira herritik.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. "Cervantes Ejemplar" (Micomicón). Coliseoan.

Zapatua 1

MENDI IRTEERA

09:00. "Gure inguruko historia, Izarraitz ezagutzen". Untzagatik abiatuta.

TAILERRA

09:00/13:00. Matematika manipulatio eta idazketa-irakurketa tailerra. Prezioa: 55 euro laguneko. Izen ematea beharrezkoa da. Kenko osasun gunean.

DUATLOIA

16:45. XXVI. Eibarko Duatloia. Boxeak Untzagan.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

17:00. "Festara!!" (Tomaxen Abenturak). Coliseoan.

UMEENDAKO JAIA

17:00. Spring Party (udaberriko jaia, ingelesez). Kids&Us-en (Ego-Gain, 8).

Domeka 2

ZUHAITZ EGUNA

09:00. Klub Deportiboan batu, ibilbidea denek elkarrekin oinez egin eta Usartzaraino igotzeko.
11:00. Lau motatako 40 zuhaitz landatuko dira.
12:00. Hamaketakoa.
13:00. Jaitsiera Eibarrera.

TXIRRINDULARITZA

09:00. 46. Valenciaga Oroitzarrearen irteera, Untzagatik Azitainera. Helmuga 13:00ak aldera, San Andres eliza parean.

KANIKROSA

09:00/15:00. II. Elkartasun Kanikrosa, Marcan Huella elkartearen eskutik. Arraten.

KONTZERTUA

12:30. Eibarko Cielito Musika Taldea. Coliseoan.

BERMUT ETA MUSIKA JAIA

13:30. Ametsa tabernan.

KONTZERTUA

19:00. Perlak taldea, Korrika Kulturalaren barruan. Beleko tabernan.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. "La educación de los cerdos" (Narruzko Zezen). Hezkuntza Esparruan.

Astelehena 3

SENDABELARREN FOROA

16:00. "Brioleta eta papantzea". Portalean.

DOKUMENTALA

19:00. "Zura", Korrika Kulturalaren barruan. Coliseoan.

Erakusketak

Martxoaren 31ra arte:

- AGUSTIN BUSSELOREN argazki-erakusketa. (*El Ambigu tabernan*)
- M. SOL YABENEN argazki-erakusketa. (*Portalea jatetxean*)

Apirilaren 2ra arte:

- "TXINAKO LAU HIRITAN" JOSE LUIS IRIGOIENEN argazkiak. (*Topalekuan*)

Apirilaren 22ra arte:

- "MIRADORES" LUCENA MORALEN argazkiak. (*El Corte Inglesean*)

Apirilaren 23ra arte:

- EIBARKO ARTISTEN ELKARTEAREN erakusketa. (*Portalean*)

Apirilaren 4tik 7ra:

- KORRIKAREN edizio guztietako kartelen erakusketa. (*Topalekuan*)

Martitzena 4

IKASTEN

10:00. Asier Errasti laburmetraien emanaldia, Juan Aldairekin. Uni Eibar-Ermuan.

IKASTEN

16:00. Puntu-tailerra.
17:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

EMAKUMEEN HISTORIA

18:30. "Malala (Aktibista eta Bakeko Nobel Saria)". Leticia Martinez-Alcocerrek dinamizatutako saioa. Portalean.

IPUIN KONTAKETA

19:00. "Beldurrak" gazte eta helduentzak kontakizuna, Xirrikituen Jostunen eskutik. Korrika kulturalaren barruan. Portalean (areto nagusian).

HARIXA EMOTEN

19:00. Idazlearekin Harixa Emoten: "Paradisua", Arrate Egañarekin. Portalean.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. "Incendios" (Ysarca Art Promotions / T.de la Abadía/T. Invernadero). Coliseoan.

Eguaztena 5

IKASTEN

09:50. Ibilaldia: Gasteiz-Estibalitz. Bazkaria eraman. Autobusa Ego-Gainetik irtengo da.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. "Fuera de juego" (Borobil Teatra). Coliseoan.

Eguena 6

IKASTEN

10:00. "Hiri aktiboak-Pertsonentzat hiriak" hitzaldia, Juanma Muruaren (Ekonomian lizenziatua) eskutik. Armeria Eskolan.

KORRIKA TXIKIA

15:15. Korrika Txikia, Arno DJ-k girotua.

KALEETAN KANTUZ

17:45. Kaleetan Kantuz dantzak. Untzagako jubilatuek etxean.
19:30. Kaleetan Kantuz abesbatzaren entsegua. San Andres elizan.

KALERATZEAK STOP

19:00. Kaleratzeak Stop plataformakoen bilera irekia. Portalean.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. "Jokoz kanpo" (Borobil Teatra). Coliseoan.

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurra etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, ANE, astelehenian 11 urte bete zenuzuen-eta. Eta amama Margariri, etzi beteko ditte-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, HELENE, etxeko poxpolintxo!, astelehenian bost urte egingo dozuz-eta. Patxo bat famelix eta, batez be, Nahiaren partez.



Zorionak, MAIALEN, domekan 22 urte egingo dozuz-eta. Egun zoragarria pasauko dozulakuan, asko maite zaittuen etxeak.




Zorionak, IMANOL, atzo urtiak bete zenuzuen-eta. Ondo-ondo ospatu. Laztan handi bat lagun guztien partez.



Ongi etorri, MARTIN Gallastegi, martxuaren 23tik gure artian zagoz-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, UNAX, txapeldun! 2 urte, mutil handi! Markel eta Beñaten partez, zaku bete musuz.




Zorionak, JONE, martitzenian lau urte egin zenuzuen-eta, printzesa! Patxo handi bat famelixaren partez.



Zorionak, JUNE, gaur 10 urte betetzen dozuz-eta! Patxo pillua, Zalo, Anneke, Laia, Izar eta Amaia partez.




Zorionak, JONE, bixar 10 urte beteko dozuz-eta. Musu potolo bat famelixaren eta, batez be, Aneren partez.



Zorionak, MIREN Fernandez, martitzenian lau urte bete zenuzuen-eta. Musu handi bat etxekuen partez.



Zorionak, MADDALEN eta ELENE. Irri eta alai, zuekin nonahi. Maite zaittuegu!



Deabrutxo barrutik Kanpotik aingeru Zorionak, IZAR eta PERU!!

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)
1ean: 19:45, 22:30
2an: 20:00

"Land of mine"

Zuzendaria: Martin Zandviet



(2 ARETOAN)
1ean: 19:45, 22:30
2an: 17:00, 20:00
3an: 20:30

"El viajante"

Zuzendaria: Asghar Farhadi



(ANTZOKIAN)
1ean: 17:00(1), 19:45, 22:30
2an: 17:00(1 Aretoa), 20:00
3an: 20:30(1 Aretoa)

"Ghost in the Shell"

Zuzendaria: Rupert Sanders



(ANTZOKIAN)
1ean: 17:00(2 Aretoa)
2an: 17:00

"Benito Sanson y los taxis"

Zuzendaria: Manuel Pradal



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 652-032117.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Garaje itxia salgai Ipuruko Eroskiko behealdean. 23 m². Sarbide ona. Oso egoera onean. Tel. 652-764566.

3.2. Errentan

– Garajea alokagai Eibar erdialdean (Untzagan). Tel. 606-083992.
– Lokala alokagai Birjiñape 1-ean. 33 m². Bulegoa egiteko aproposa. Tel. 688-678934.
– Garajea alokagai Ego-Gain kalean. Tel. 660-312431.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita gauz ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 628-318570.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-193840.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna. Tel. 631-887341.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 632-737903.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 653-156403.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta pegorak garbitzeko. Tel. 653-010861.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-204245.
– Emakume euskalduna eskaintzen da goizez nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 617-935160.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 648-470485.
– Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 632-286792.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta kamarera jarduteko. Tel. 664-225040.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 680-808125.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldelaguntzaile jarduteko. Tel. 634-437852.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauz ere. Tel. 690-134485.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 617-537421.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 631-929576.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 658-310620.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 632-833905.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 602-057185.
– Mutila eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632-026510.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 648-039187.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 632-066630.
– Gizona eskaintzen da sukaldari jarduteko (esperientzia), garbitzaile profesional moduan eta barra edo mahai laguntzaile. Tel. 625-997599.
– Emakumea eskaintzen da gauz nagusiak zaintzeko. Tel. 632-669488.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 662-012834.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 697-665452.
– Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 632-983250.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 671-763558.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Disponibilitate osoa. Tel. 632-892384.
– Emakumea eskaintzen da gauz edo orduka nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 603-386326.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 633-072144.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 626-197217.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 658-158036.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-488692.
– Gizonetara eskaintzen da baserriko lanetan edo bestelakoetan jarduteko. Tel. 688-302653.
– Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Orduka. Tel. 669-667790.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 602-190614.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-602883.
– Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Interna. Tel. 638-338816.
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko eta dendari moduan. Tel. 632-426847.
– Neska euskalduna eskaintzen da pegorak eta soziedadeak garbitzeko. Tel. 617-571210.
– Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 688-899813.
– Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 631-367802.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-288967.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 622-623216.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-291539.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 673-028698.
– Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 617-628137.

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 666-197835.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Disponibilitate osoa. Tel. 612-493242.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 600-840833.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Erreferentziak. Tel. 666-197831.
– Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 654-949568.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 645-891307.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 658-734699.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientziarekin. Tel. 612-550377.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Orduka. Tel. 631-506763.
– Emakumea eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 685-768026.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 632-779980.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 631-934819.

4.2. Langile bila

– Emakume euskalduna behar da umeak zaintzeko. Tel. 676-006915.
– Kamarero eta sukaldari profesional euskaldunak behar dira. Ezinbestekoa autoa eta erreferentziak. Bidali curriculum: 39 Postakutxa / 20870 / Elgoibar.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

– Eibarko Kids and Us Eibarrek irakasleak behar ditu 2017-18 ikasturterako. Ingeles maila altuarekin (C1 titulua gutxienez) eta umeak gogoko izatea eta inplikazioarekin. Curriculum: direccion.eibar@kidsandus.es
– DBH 2-ko ikasleak Matematiketako irakasle partikularra (euskalduna) behar du.

5.2. Eskaintzak

– Batxilergo, DBH eta Heziketa Zikloetako klase partikularrak ematen ditut. Tel. 685-739709.
– DBH, Batxilergo eta Unibertsitate mailetako matematika etabar ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Goizez ere bai. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Lehen jaunartzerako soinekoa salgai. Ia erabili gabe. Prezio onean. Tel. 653-010861.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdut/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eu



Alexander Molinero Rodriguez (Eibar)

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

www.mondragon.edu/gmh
943 71 21 91 ▪ 664 277 592



Zergatik aukeratu zenuen Automatizazio eta Robotika Industrialeko Goi Mailako Heziketa ziklo hau?

Beti pentsatu dut Robotika etorkizun handiko gaia dela, uste dut, Robotika izango dela orokorrean industria enpresa guztien funtsezko elementua. Robotek protagonismo geroz eta handiagoa hartuko dute sistema automatizatuetan eta gu prest egon beharko gara Robot horiek erabiltzeko.

Robotika bai baina zergatik Mondragon Goi Eskola Politeknikoan?

Mondragon Goi Eskola Politeknikoari buruzko hainbat iritzi ezagutzen nituen. Ikasketa zentroa aukeratzeko garaian Ate Irekietako Jardunaldira etorri nintzen eta ikusi nuen MGE Pen instalazio berriak zeudela eta ekipamenduak ere oso egokiak zirela. Era berean, erabiltzen den metodologia gustatu zitzaidan, baita Eskolak enpresarekiko erakusten duen gertutasuna ere. Susmatzen nuen enpresarenganako hurbiltasun horrek DUAL programan parte hartzeko erraztasunak emango zituela eta hori lagungarria izango zela, ondoren, lan mundura sartzeko.

Heziketa Ziklo honetan ETHAZI metodologia aktiboarekin lan egiten duzue. Hau da, erronken bidez funtzio profesionalak simulatzen dituzue.

Arlo honetako ezagutza eta teknologia oso zabala da eta, hasieran, ez nuen uste gaiak hain gogorrak izango zirenik eta horrenbesteko zorrotzasunarekin lagunduko zirenik. Hasiera gogorra izan zen, baina, denbora aurrera joan ala eta lan-taldean proiektuak landuz, egin beharreko eramangarriagoa izan da. Lan egiteko modua aldatzen da eta gauzak hobeto egiten dira bakarrik ez zaudela konturatzen zarenean eta ohartzen zara taldeko kide bakoitzaren gaitasunak batuz gauza handiak edo konplexuak egin daitezkeela.

Zuen kasuan zeintzuk izan dira erronkak?

Praktika txikiak hasi ginen arren, lanek eta proiektuek gero eta pisu handiagoa hartzen dute ikasketa prozesuan. Batetik, motorrekin egin ditugu praktikak, eta bestetik, ate automatizatu baten ireki eta ixteko prozesuak simulatu ditugu. Orain Zelioaren programazioarekin hasi gara, ondoren automatismo sinpleak egin ahal izateko. Esan digute, ikasturtea amaitzeko proiektu handiago eta luzeago bat egingo dugula, entzun dut gogorra izango dela eta lan dezente eskatuko dutela, baina ilusio handia daukat erronka horri aurre egiteko.

Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Mekatronika Industrialia

Ate Irekiak

Apirilak 5

18:00

▪ Maiatzak 27

11:00

35 urte^{tik}
góra LTZ ofizial gisa

Etxe-Lan

www.etxe-lan.com

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN KONPONKETAK

MANTENTZE-LANAK / BERME-LUZAPENAK / ORDEZKO PIEZEN SALMENTA

ZERBITZU TEKNIKO OFIZIALA

943 79 89 97



OSTALARITZA

PROIEKTUAK, EKIPAMENDUAK ETA OSTALARITZAKO,
GARBITEGIETARAKO ETA HOTZ INDUSTRIALERAKO MAKINEN SALMENTA

ZERBITZU TEKNIKO OFIZIALA

943 79 12 30

Banataile Ofiziala




FAGOR INDUSTRIAL





MONUMENTU ARTISTIKOA



LASA JATETXEA

**ERA GUZTIETAKO BANKETEAK
OSPATZEKO toki bikaina**



**250 LAGUNENDA KO
JANGELA**



Ozaeta Jauregia -BERGARA-
Tel. 943 76 10 55 Fax: 943 76 20 29



www.restaurantelasa.es